



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 8a

34. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/PES-00013. Galdera, Nagoreko mahaia deitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-26/PES-00014. Galdera, eko-herrixketako espazio komunuen kudeaketari eta erregularizazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-26/PES-00015. Galdera, Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-26/PES-00016. Galdera, Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-26/PES-00017. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-26/PES-00018. Galdera, 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-26/PES-00019. Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-26/PES-00020. Galdera, Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-26/PES-00021. Galdera, modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaugarritasun egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-26/PES-00022. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-26/PES-00023. Galdera, Caparrosoko Kristo Santuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-26/PES-00024. Galdera, Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-26/PES-00025. Galdera, Volkswagen Navarraren ez-betetzeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-26/PES-00026. Galdera, Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- 11-26/PES-00027. Galdera, abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-26/PES-00028. Galdera, simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-26/PES-00029. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarateak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-26/PES-00031. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-26/PES-00032. Galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-26/PES-00033. Galdera, etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-26/PES-00034. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-26/PES-00035. Galdera, Lanbide Heziketako praktikei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-26/PES-00036. Galdera, Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-26/PES-00037. Galdera, Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako erduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- 11-26/PES-00038. Galdera, Bidean-en anbulantziei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- 11-26/PES-00039. Galdera, Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (45. or.).
- 11-26/PES-00040. Galdera, egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- 11-26/PES-00041. Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (46. or.).
- 11-26/PES-00042. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (48. or.).
- 11-26/PES-00043. Galdera, Moves III Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (49. or.).
- 11-26/PES-00044. Galdera, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroeiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00013. Galdera, Nagoreko mahaia deitzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Nagoreko mahaia deitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Itxaso Soto Díaz de Cerio foru-parlamentari andreak Nagoreko Mahaia noiz deituko duten jakiteko eginiko informazio-eskaerari dagokionez (11-26/PES-00013):

Nagoreko Mahaia ez da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko 2019ko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean jasotako organo arautua.

Lan-mahai malgua bat da, eta han parte hartzen dute bai Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak,

bai Artziko Udalaren eta Nagoreko Kontzejuaren mahaia osatzen duten toki-erakundeek, eta, horrenbestez, sortzeko xedea kontuan hartuta, bilera egitea gomendatzen duten gai zehatzak sortzen direnean deitzen da.

Adierazi behar da gaur egun badaudela Artziko Udala barnean hartzen duten plangintzarako eta partaidetzarako beste espazio eta tresna batzuk, erabat operatiboak eta egokiak, hala nola Pirinioetako Plana eta Itoizko Mahaia, eta horietan modu egituratuan lantzen ari dira Nagoreri dagozkion jarduerak eta lan-ildoak, betiere aurrez zehaztutako bide-orri baten arabera.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Kohesiorako Departamentuak baloratuko du Nagoreko Mahaia-aren deialdia, baldin eta hori justifikatzen duten gai espezifikokoak sortzen badira eta lehendik dauden tresnekin osagarritasuna ageri badute. Horrek ez du galarazten, dena den, mahai horretako edozein kidek deitu ahal izatea, egokitzat jotzen duenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00014. Galdera, eko-herrixketako espazio komunen kudeaketari eta erregularizazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak eko-herrixketako espazio komunen kudeaketari eta erregularizazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak eko-herrixken erregularizazioari buruz idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00014):

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez du une honetan jarduketarik aurreikusita eko-herrixkei dagokienez.

Nafarroan bi eko-herrixka daude: Lakabe, Lakabeko kontzejuan, Artzibarreko udalerrikoa dena, eta Arterra Bizimodu, Artiedako kontzejuan dagoen elkarte, Urraulbeitiko udalerrikoa dena. Biak ala biak daude Eko-herrixken Sare Iberiarrean (RIE).

Kontzeju gisa, hala Lakabe nola Artieda toki-entitateak dira. Hori dela eta, eko-herrixka autogestionatu gisako funtzionamendua eta toki-entitateen izaera bereizi behar dira, haren bidez Nafarroako beste edozein kontzejuren araubide eta estatus juridiko bera baitute, eta toki-entitate horiei aplikagarri zaien araudia bete behar dute.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00015. Galdera, Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Virgen del Camino Ikastetxe Integratuko ikasleen lantokiko prestakuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 23ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26/PES-00015 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak igorritako jarraibideak honako ebazpen hauetan daude: 534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren zuzendari nagusiak emana, jarraibideak onesten dituen Nafarroan Lanbide Heziketaren Sistemako graduen eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, Lanbide Heziketako irakaskuntzei eta programa espezifikoiei dagokie-

nez, 2025-2026 ikasturtean; eta 795/2025 Ebazpena, azaroaren 13koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, honako hauek aldatzen dituena: 534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, jarraibideak onesten dituena Nafarroan Lanbide Heziketaren Sistemako D eta E graduen eskaintzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako antolaketa eta funtzionamendua arautzeko, oinarrizko mailako, erdi mailako eta goi mailako zikloi eta espezializazio-mailei dagokienez, Nafarroako lurralde-eremuan, 2025-2026 ikasturtean; eta 221/2025 Ebazpena, apirilaren 14koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, 2025-2026 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean honako ziklo hauek modalitate presentzian ematen dituzten ikastetxeetako eskola egutegia eta ordutegia egiteko jarraibideak onartzeko: Lanbide Heziketako Sistemako D graduetako oinarrizko mailako, erdi mailako eta goi mailako zikloak, eta arte plastikoetako eta diseinuko lanbide irakaskuntzetako erdi mailako eta goi mailako zikloak.

Orobat, gogorarazi behar da ezen, 2025eko urriaren 8an, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusiak zirkular bat igorri zuela 534/2025 Ebazpenari eginiko argibideekin (534/2025 Ebazpena, abuztuaren 4koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroan 2025/2026 ikasturtean Lanbide Heziketako Sistemaren gradu-eskaintzak ematen dituzten ikastetxe

publikoen antolamendua eta funtzionamendua, lanbide-heziketako programa bereziei eta irakaskuntzei dagokienez, arautu behar dituzten jarraibideak).

Virgen del Camino ikastetxe bateratuko ikasleak sartzeko, jarraibide haiek ari dira kontuan hartzen, bai eta ikastetxeak berak zehaztutako egutegia ere.

Ikastetxeak orduak, irakastorduak nahiz osagarriak, espezifikoki esleitzea zuzendaritza-taldearen eskumen bat da erabilgarri dauden baliabideak kudeatzeko autonomiaren esparruan.

Ebazpenak publikoak dira eta ikastetxeetara igorri dira. Hezkuntza Departamentuaren webgunean argitaratuta daude:

<https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/instrucciones-de-inicio-de-curso>

Baita Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere:

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/199/0>

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/241/11>

Hori guztia jakinarazten dizut, jakitun egon zaitezten eta behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00016. Galdera, Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-26/PES-00016 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernu Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernua batera ari da lan egiten, Vianako Printzea Erakundea–Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Turismo Zuzendaritza Nagusiaren bitartez Kultura Ministerioaren Donejakue Kontseiluarekin koordinaturik, 2027ko Donejakue Urtearen kariatara Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berrian egon beharko diren jarduketak zehazteko.

Behin jarduketak zehaztu eta dagokion dokumentu estrategikoa itxita, Plana jakinarazi eta aurkeztuko da egokia den esparru instituzionalean, eta era horretan onartutako mozioa beteko da (11-23 MOC 00054).

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 13an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00017. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, talde parlamentarioari atxiki gabeko foru-parlamentari M.^a Teresa Nosti

Izquierdo andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00017):

Galdera honi:

1. Zeintzuk dira, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko abenduaren 31ko egoera berariaz aipatuta, baimendutako plantillari, dagoen plantillari eta egiaz diharduen plantillari buruzko datuak, lotura-motaren arabera banakatuta (funtzionarioak, kontratatutako langileak, prestakuntza espezializatuko langileak edo beste modalitate batzuk), bai eta bete gabeko lanpostuen kopurua ere, kausak banakatuta (absentismoa, eszedentziak, lanaldi-murrizketak, zerbitzu-eginkizunak edo beste administrazio-egoera batzuk), datu guztiak balio absolutuetan adierazita?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plazak (2025eko abenduaren 31)					
TALDEA	ESTAMENTUA	PLAZA MOTA	Plazak	Betetako plazak	
Behin-behinekoak	Goi-karguen behin-behineko p.	Behin-behinekoak	1	1	
	Goi-kargu ez direnen behin-behineko p.	Behin-behinekoak	33	31	
Osasun arlokoak	Laguntza-burutzak	Burutza	444	388	
		Fakultatibo espezialistak	Oinarrizkoa	1.359	1.316
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	34	34	
		Itxaron-zerrenden sarea	2	2	
		Aldi baterako programak	16	16	
		Oporrak	4	4	
		Bestelako osasun-fakultatiboak	Oinarrizkoa	783	756
			O-NOZ / NOPLOiko arreta	30	30
			Aldi baterako programak	23	23
			Zeregin-pilaketa	4	4
			Oporrak	7	7
		Osasun-diplomadunak	Oinarrizkoa	3.250	3.220
			Laborala / Justizia	1	1
			O-NOZ / NOPLOiko arreta	105	104
		Itxaron-zerrenden sarea	13	13	
		Aldi baterako programak	17	17	
		Zeregin-pilaketa	27	27	
		Oporrak	274	273	

	Prestakuntzako espezialistak	Egoiliarak	524	524
	Osasun-teknikariak	Oinarrizkoa	510	504
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	16	16
		Itxaron-zerrenden sarea	2	2
		Aldi baterako programak	6	6
		Zeregin-pilaketa	3	3
		Oporrak	23	23
	Hezitzaileak	Oinarrizkoa	3	3
	Osasun-laguntzaileak	Oinarrizkoa	1.488	1.451
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	51	51
		Itxaron-zerrenden sarea	4	4
		Aldi baterako programak	3	3
		Zeregin-pilaketa	20	20
		Oporrak	153	153
	Zeladoreak	Oinarrizkoa	461	453
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	8	8
		Itxaron-zerrenden sarea	1	1
		Aldi baterako programak	5	5
		Zeregin-pilaketa	10	10
		Oporrak	36	36
Administrazioa	Burutzak	Burutza	254	233
	Administrazioko teknikariak	Oinarrizkoa	54	46
		Administrazioko Kudeaketa	Oinarrizkoa	193
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	18	18
		Aldi baterako programak	4	4
		Zeregin-pilaketa	5	5
		Oporrak	1	1
	Ofizialak	Oinarrizkoa	83	82
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	1	1
		Oporrak	1	1
	Administrazioko ofizialak	Oinarrizkoa	1.189	1.178
		Laborala / Justizia	1	1
		O-NOZ / NOPLOiko arreta	42	42
		Itxaron-zerrenden sarea	5	5
		Aldi baterako programak	2	2
		Zeregin-pilaketa	5	5
		Oporrak	9	9
	Mantentze-lanetako laguntzaileak	Oinarrizkoa	5	5
	Zerbitzu Orokorretako laguntzaileak	Oinarrizkoa	6	6
	Administrari laguntzaileak	Oinarrizkoa	25	16
Menpeko langileak	Oinarrizkoa	340	339	
	O-NOZ / NOPLOiko arreta	15	15	
	Zeregin-pilaketa	5	5	
	D. intelektuala	7	7	
	Oporrak	4	4	
Guztira			12.028	11.758

Plazak: plantilla organikoan indarrean daudenak (hutsik ez daudenak + plaza huts okupatuak + plaza huts okupatu gabeak) + egiturazkoak (okupatuak)

Betetako plazak: plantilla organikoan indarrean daudenak (hutsik ez daudenak + plaza huts okupatuak) + egiturazkoak (okupatuak)

Oharra: laguntza-burutza ez-ordezkarrien erreserbak betetzen duten burutzan zenbatzen dira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla baliokidea eta benetako plantilla (2025eko abendua)							
TALDEA	ESTAMENTUA	OKUPAZIO MOTA	Behin- behineko langileen okupazioa	Langile finkoen okupazioa	Aldi baterako langileen okupazioa	Langileen absentziak	BENETAKO plantilla (Okupazioa - Absentziak)
Behin- behinekoak	Goi-karguen behin-behineko p.	Plantilla egonkorra	1,00				1,00
	Goi-kargu ez direnen behin- behineko p.	Plantilla egonkorra	31,00			0,71	30,29
Osasun arlokoak	Laguntza-burutzak	Plantilla egonkorra		388,36		66,69	321,67
	Fakultatibo espezialistak	Plantilla egonkorra		992,38	298,22	321,37	969,23
		Itxaron- zerrendak			3,45	0,42	3,03
		Ordezkapenak			56,25	13,46	42,80
	Bestelako osasun- fakultatiboak	Plantilla egonkorra		560,90	191,72	56,73	695,89
		Ordezkapenak			51,33	2,91	48,42
	Osasun- diplomadunak	Plantilla egonkorra		2.158,63	1.050,71	564,87	2.644,47
		Itxaron- zerrendak			23,53	5,48	18,05
		Ordezkapenak			787,68	57,83	729,84
	Prestakuntzako espezialistak	Kanpainak			520,67	95,44	425,23
	Osasun- teknikariak	Plantilla egonkorra		377,37	137,73	127,37	387,73
		Itxaron- zerrendak			2,67	0,48	2,18
		Ordezkapenak			135,47	11,32	124,15
	Hezitzaileak	Plantilla egonkorra		1,00	2,00	1,78	1,22
Ordezkapenak				1,77	0,12	1,65	
Osasun- laguntzaileak	Plantilla egonkorra		925,08	509,81	368,02	1.066,87	
	Itxaron- zerrendak			8,62	1,23	7,39	
	Ordezkapenak			476,44	52,63	423,81	
Zeladoreak	Plantilla egonkorra		302,18	137,65	120,18	319,65	
	Itxaron- zerrendak			4,49	0,50	3,99	
	Ordezkapenak			164,73	12,40	152,32	
Administrazioa	Burutzak	Plantilla egonkorra		231,75		44,70	187,05
	Administrazioko teknikariak	Plantilla egonkorra		23,21	19,17	9,40	32,98
		Ordezkapenak					
	Administrazioko Kudeaketa	Plantilla egonkorra		96,96	95,85	38,66	154,15
		Ordezkapenak			21,44	0,89	20,55
	Ofizialak	Plantilla egonkorra		56,71	24,59	22,98	58,32
		Ordezkapenak			18,75	1,60	17,15
Administrazioko ofizialak	Plantilla egonkorra		692,96	447,73	226,94	913,75	
Mantentze- lanetako laguntzaileak	Itxaron- zerrendak			9,02	1,21	7,81	
	Ordezkapenak			216,86	12,93	203,93	
	Plantilla egonkorra		5,00		0,95	4,05	

Zerbitzu Orokorretako laguntzaileak	Plantilla egonkorra	3,65	1,00	1,32	3,33
	Ordezkapenak			3,02	1,99
Administrari laguntzaileak	Plantilla egonkorra	10,50	5,00	3,89	11,61
	Ordezkapenak			6,60	5,34
Menpeko langileak	Plantilla egonkorra	218,71	116,79	91,88	243,61
	Itxaron-zerrendak			1,15	1,07
	Ordezkapenak			105,24	96,27
Guztira		32,00	7.045,34	5.657,14	2.350,65
					10.383,83

Plantilla baliokidea (okupazioa): Kontratuko egun naturalak × % kontratua ÷ hileko egun naturalak

Absentziak: oporrak, guardiako librantzak, absentismoa hartzen ditu barne

2. Zeintzuk izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko ekitaldi osoari dagokionez, batez besteko absentismoa, batez besteko egun-kopuruaren eta plantillaren gaineko portzentajearen bidez adierazita, absentismo-egunen kopuru

osoa, ordezkapen-kontratazioen bidez bete ziren egun horien kopurua eta portzentajea, bai eta dau den lanaldi-murrizketen kopurua ere, murrizketa-portzentajearen arabera banakatuta, eta datuak balio absolutuetan eta ehunekoetan adierazita?

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko absentismoa (2025. urtea)					
TALDEA	ESTAMENTUA	Absentismoaren batez besteko lanaldi kopuru baliokideak	Absentismoaren ehuneko plantillaren gainean	Absentismoaren lanaldi kopuru baliokideak guztira	Absentismoa ordezteko lanaldi baliokideak
Behin-behinekoak	Goi-karguen behin-behineko p.				
	Goi-kargu ez direnen behin-behineko p.	3,93	% 1,08	122,58	
Osasun arlokoak	Laguntza-burutzak	15,82	% 4,33	6.091,90	
	Fakultatibo espezialistak	33,50	% 9,18	44.148,65	11.108,22
	Bestelako osasun-fakultatiboak	30,27	% 8,29	24.207,29	9.505,27
	Osasun-diplomadunak	34,79	% 9,53	135.062,11	109.738,31
	Prestakuntzako espezialistak	14,56	% 3,99	7.851,46	
	Osasun-teknikariak	39,89	% 10,92	25.325,47	22.339,33
	Hezitzaileak	28,64	% 7,84	95,98	57,00
	Osasun-laguntzaileak	48,38	% 13,25	90.195,22	83.944,74
	Zeladoreak	44,51	% 12,19	26.107,36	27.033,14
Administrazioa	Burutzak	13,62	% 3,73	3.143,34	
	Administrazioko teknikariak	45,22	% 12,39	1.969,21	163,33
	Administrazioko Kudeaketa	31,54	% 8,64	6.626,54	4.145,98
	Ofizialak	38,98	% 10,67	3.772,43	3.309,63
	Administrazioko ofizialak	29,91	% 8,19	39.553,00	32.295,44
	Mantentze-lanetako laguntzaileak	19,32	% 5,29	92,09	
	Zerbitzu Orokorretako laguntzaileak	77,97	% 21,33	567,98	574,53
	Administrari laguntzaileak	47,36	% 12,98	1.214,73	1.588,78
	Menpeko langileak	47,95	% 13,13	20.580,79	19.402,40
Guztira		35,17	% 9,63	436.728,13	325.206,10

Lanaldi baliokideak: Egund naturalak × kontratuaren %-a

Absentismoaren lanaldi baliokideen batez besteko kopurua: Absentismoaren jardunaldi baliokideak ÷ Plantilla baliokidea

Plantillaren gaineko absentismoaren ehunekoak: Absentismoaren jardunaldi baliokideak ÷ Okupazioaren lanaldi baliokideak

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanaldiaren aldi murrizturen bat izan duten profesionalen kopurua (2025. urtea)

TALDEA	ESTAMENTUA	MURRIZKETA %	Profesionalen kopurua
Osasun arlokoak	Laguntza-burutzak	% 87,50 7/8	2
		% 83,33 5/6	1
		% 66,67 2/3	1
		% 50 1/2	1
Fakultatibo espezialistak	% 87,50 7/8	16	
	% 83,33 5/6	10	
	% 75 3/4	9	
	% 66,67 2/3	10	
	% 60 3/5	3	
	% 50 1/2	13	
	% 40 2/5	2	
	% 33,33 1/3	1	
Hondarrekoak	4		
Bestelako osasun-fakultatiboak	% 87,50 7/8	4	
	% 83,33 5/6	6	
	% 75 3/4	4	
	% 66,67 2/3	7	
	% 60 3/5	1	
	% 50 1/2	21	
	% 45	2	
	% 40 2/5	4	
Hondarrekoak	38		
Osasun-diplomadunak	% 87,50 7/8	32	
	% 83,33 5/6	34	
	% 75 3/4	30	
	% 66,67 2/3	65	
	% 60 3/5	7	
	% 50 1/2	100	
	% 45	5	
	% 40 2/5	6	
	% 33,33 1/3	73	
Hondarrekoak	134		
Prestakuntzako espezialistak	% 87,50 7/8	1	
	% 83,33 5/6	1	
	% 66,67 2/3	1	
Osasun-teknikariak	% 87,50 7/8	4	
	% 83,33 5/6	11	
	% 75 3/4	4	
	% 66,67 2/3	5	
	% 50 1/2	4	
	% 33,33 1/3	6	
Hondarrekoak	31		
Osasun-laguntzaileak	% 87,50 7/8	4	
	% 83,33 5/6	4	
	% 75 3/4	1	
	% 66,67 2/3	10	
	% 50 1/2	21	
	% 40 2/5	1	
	% 33,33 1/3	15	
Hondarrekoak	34		

Zeladoreak	% 66,67 2/3	6	
	% 50 1/2	8	
	% 40 2/5	1	
	% 33,33 1/3	9	
	Hondarrekoak	8	
Administrazioa	Burutzak	% 87,50 7/8	1
		% 83,33 5/6	3
		% 50 1/2	2
	Administrazioko teknikariak	% 83,33 5/6	3
		% 60 3/5	1
		% 33,33 1/3	1
	Administrazioko Kudeaketa	% 87,50 7/8	3
		% 83,33 5/6	5
		% 75 3/4	2
		% 66,67 2/3	3
		% 60 3/5	3
		% 50 1/2	17
		% 40 2/5	3
		% 33,33 1/3	4
		Hondarrekoak	12
Ofizialak	% 87,50 7/8	1	
Administrazioko ofizialak	% 87,50 7/8	20	
	% 83,33 5/6	31	
	% 75 3/4	24	
	% 66,67 2/3	32	
	% 60 3/5	5	
	% 50 1/2	104	
	% 45	7	
	% 40 2/5	15	
	% 33,33 1/3	39	
	% 55	3	
Hondarrekoak	163		
Administrari laguntzaileak	Hondarrekoak	1	
Menpeko langileak	% 87,50 7/8	2	
	% 83,33 5/6	5	
	% 75 3/4	1	
	% 66,67 2/3	8	
	% 60 3/5	1	
	% 50 1/2	18	
	% 40 2/5	6	
	% 33,33 1/3	6	
Hondarrekoak	21		
Guztira		1.165	

Profesionalen kopurua: urtean zehar aldiren batean lanaldi-murrizketa izan duten profesionalak

3. Zein izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025. urteari dagokionez, egindako ordu guztiak, honela banakatuta: lanaldi arrunta, presentzia fisikoko guardiak, guardia lokalizatuak, larunbat, igande eta jaiegunetako bisita-baimenak eta lanaldi

kirurgikoaren luzapenak, bai eta kontzeptu horietako bakoitzari dagokion soldata-masa ere, berariaz adierazita, lanaldi kirurgikoaren luzapenen kasuan, zenbat ordu eta zer ehunekotan ez ziren ordaindu, bi ordutik beherako iraupena izateagatik?

ORDUAK								
Estamentuak	Guardiak: lokalizatuak	Guardiak: presentzia fisikoa	Guardiak: egoiliarra	Bisitak pasatzea	Lanaldi-luzapena	Produktibitate-orduak guztira	Ordu arruntak guztira	Guztizkoa, orokorra
Osasun-laguntzaileak	6.964,72				194,55	7.159,27	2.822.245,89	2.829.405,16
Zeladoreak	2.856,00					2.856,00	934.183,28	937.039,28
Osasun-diplomadunak	123.658,26	69.788,92			560,11	194.007,29	5.977.680,71	6.171.688,00
Prestakuntzako espezialistak			441.431,30			441.431,30	918.824,76	1.360.256,06
Fakultatibo espezialistak	252.022,53	367.193,87		45.450,75	1.381,29	666.048,44	2.155.306,25	2.821.354,69
Laguntza-burutzak	75.191,16	55.773,52		6.104,75	470,67	137.540,10	670.977,89	808.517,99
Administrazioko ofizialak	1.174,53					1.174,53	2.109.913,45	2.111.087,98
Osasun arloko beste fakultatibo batzuk	23.156,20	95.482,11				118.638,31	1.267.198,69	1.385.837,00
Osasun-teknikariak	26.640,98	708,37				27.349,35	998.589,61	1.025.938,96
Guztizko orokorra	511.664,38	588.980,13	441.397,96	51.555,50	2.606,62	1.596.204,59	17.854.920,53	19.451.125,12

Adierazitako kolektiboentzako orduak, honela banakatuta: guardiak (lokalizatuak eta presentzia fisikokoak), prestakuntzako langileen guardiak (egoiliarrak), bisitak pasatzea eta kirurgiako lanaldi-

luzapenak, produktibitate-orduak eta ordu arruntak bereizita. Halaber, aurreko kontzeptuen guztizko orokorra erantsi dugu.

SOLDATA-MASA						
Estamentuak	Guardiak: lokalizatuak	Guardiak: presentzia fisikoa	Guardiak: egoiliarra	Bisitak pasatzea	Lanaldiaren luzapena	Guztizko orokorra
Osasun-laguntzaileak	42.623,96				4.801,56	47.425,52
Zeladoreak	17.478,72					17.478,72
Osasun-diplomadunak	1.180.937,72	1.332.970,30			21.043,48	2.534.951,50
Prestakuntzako espezialistak			10.599.315,64			10.599.315,64
Fakultatibo espezialistak	4.014.719,02	11.687.785,32		2.715.228,38	93.706,39	18.511.439,11
Laguntza-burutzak	1.071.333,56	1.669.549,94		364.697,79	31.521,17	3.137.102,46
Administrazioko ofizialak	8.949,95					8.949,95
Bestelako osasun-fakultatiboak	368.878,26	3.039.196,88				3.408.075,14
Osasun-teknikariak	203.004,61	10.809,68				213.814,29
Guztizko orokorra	6.907.925,80	17.741.373,33	10.598.254,43	3.079.926,17	151.072,60	38.478.552,33

Adierazitako kolektiboentzako soldata-masa, honela banakatuta: guardiak (lokalizatuak eta presentzia fisikokoak), prestakuntzako langileen guardiak (egoiliarak), bitak pasatzea eta kirurgiako lanaldi-luzapenak. Halaber, aurreko kontzeptuen guztizko orokorra erantsi dugu.

Kirurgiako lanaldi-luzapen guztiak ordainduak dira, bi ordutik beherakoak izanagatik ere.

4. Zeintzuk izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko ekitaldiari dagokionez, egindako produktibitate aldakorreko orduen kopuru osoa, honako hauek berezita: itxaron-zerrendak murriztera bideratutako produktibitate aldakorra eta lanaldiak, txandak, bete gabeko plazak eta absentismo-egoerak estaltzera bideratutako produktibitate aldakorra, bai eta modalitate horietako bakoitzari dagokion soldata-masa ere?

ORDUAK			
Estamentuak	Produktibitate aldakorra	Produktibitatea: itxaron-zerrendak	Gutzizkoa, orokorra
	Absentismoak		
Osasun-laguntzaileak		639,66	639,66
Zeladoreak			
Osasun-diplomadunak	1.599,26	3.391,99	4.991,25
Fakultatibo espezialistak	11.413,29	20.980,53	32.393,82
Laguntza-burutzak	15.427,69	6.631,98	22.059,67
Administrazioko ofizialak		320,00	320,00
Bestelako osasun-fakultatiboak	128.996,81	525,47	129.522,28
Osasun-teknikariak		1.035,30	1.035,30
Gutzizko orokorra	157.437,05	33.524,93	190.961,98

Betetako absentismoei dagozkien orduak (lanaldiak betetzea, txandak, bete gabeko plazak eta absentismo-egoerak), produktibitate aldakorraren arabera, eta itxaron-zerrendak gutxitzera bideratutako produktibitate-orduak. Gutzizko orokorra zutabeen bi kontzeptuen batura dago.

ORDUAK			
Estamentuak	Produktibitate aldakorra	Produktibitatea: itxaron-zerrendak	Gutzizkoa, orokorra
	Absentismoak		
Osasun-laguntzaileak		639,66	639,66
Zeladoreak			
Osasun-diplomadunak	1.599,26	3.391,99	4.991,25
Fakultatibo espezialistak	11.413,29	20.980,53	32.393,82
Laguntza-burutzak	15.427,69	6.631,98	22.059,67
Administrazioko ofizialak		320,00	320,00
Bestelako osasun-fakultatiboak	128.996,81	525,47	129.522,28
Osasun-teknikariak		1.035,30	1.035,30
Gutzizko orokorra	157.437,05	33.524,93	190.961,98

Betetako absentismoei dagokien soldata-masa (lanaldiak betetzea, txandak, bete gabeko plazak eta absentismo-egoerak), produktibitate aldakorraren arabera, eta itxaron-zerrendak gutxitzera bideratutako produktibitatea. Guztizko orokorra zutabean bi kontzeptuen batura dago.

5. Zein izan zen, adierazitako kolektibo bakoitzeko eta 2025eko ekitaldiari dagokionez, absentismoaren ordezkapenen eta estalduren ondoriozko kostu ekonomiko osoa, kontratazio bidezko estaldurari dagokion kostua eta produktibitate aldakorraren bidezko estaldurari dagokiona bereizita, zenbatekoak balio absolutuetan adierazita?

KOSTU EKONOMIKOA			
Estamentuak	Ordezkapenak guztira (kontratazioa)	Absentismoak guztira (produktibitate aldakorra)	Guztizkoa, orokorra
Administrari laguntzaileak	184.386,31		184.386,31
Osasun-laguntzaileak	10.459.752,94		10.459.752,94
Zeladoreak	3.325.923,60	44.922,12	3.370.845,72
Osasun-diplomadunak	23.221.827,55	871.510,77	24.093.338,32
Fakultatibo espezialistak	2.242.630,56	1.019.244,76	3.261.875,32
Administrazioko ofizialak	5.011.468,79		5.011.468,79
Bestelako osasun-fakultatiboak	2.024.545,73	9.251.148,18	11.275.693,91
Osasun-teknikariak	3.372.446,47		3.372.446,47
Guztizko orokorra	49.842.981,95	11.186.825,83	61.029.807,78

Aurreko taulan estamentuen arabera ageri da kontratazio bidez eta produktibitate aldakorraren bidez, hurrenez hurren, betetako ordezkapen eta absentismoei dagokien kostu ekonomikoa. Baita bi kontzeptuen zenbaketa osoa ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00018. Galdera, 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-26/PES-00018 galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuko lehendakariak horri buruz jakinarazten diona:

– Lehen kontuarekin lotuta: ez dago bileraren aktarik, eta, ondorioz, haren edukia ez “zehatz-mehatz” helarazi, eskatu bezala.

– Bigarren kontuari dagokionez: bertaratutakoak izan ziren PES 25-00216, PES 25-00334 eta PES 25-00352 galderei emandako erantzunetan jada adierazitakoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: María Chivite Navascués

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak informazio hau ematen du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera hauei loturik (11-26/PES-00018):

1. Zer hitz egin zuten zehazki Chivite lehendakariak, Antxon Alonsok eta Justo Vicente Pelegrinik proiektu horri buruz 2020ko urriaren 20an egin zuten bileran?

2. Beste inor egon al zen bilera hartan, bertan egon zirela jada dakizkigunak eta Accionako zuzendaritzako beste batez gain?

3. Bilera hori egin eta astebetera, Chivite lehendakariak “Navarra Green” Trantsizio Ekologikorako Nafarroako Estrategia aurkeztu zuenean, 2020ko urriaren 27an, “Hiri Zirkularra” proiektua (Europako funtsen laguntza proiektu horretarako eskatu zen) 157,6 milioi euroko aurrekontuarekin ageri da, lehendik zeuden txostenetan jasotako 275,4 milioi euroen orde. Zergatik?

4. Zer ezaugarri zituen “Navarra Green” estrategian sartuta dagoen “Hiri Zirkularra” proiektuak, etxebizitza kopuruari eta gainerako ezaugarriek dagokienez? Aurreikusitako etxebizitza-kopurua hasieran planteatutako 800 etxebizitzak baino txikiagoa al zen?

5. Ba al dago “Hiri zirkularra” proiektuari buruzko txostenik 157,6 milioi euroko aurrekontuarekin?

6. Planteatzen al du Gobernuak “Hiri zirkularra” proiektua lankidetzara publiko-pribatuaren bidez egitea, Europako funtsen laguntzarik ez izan arren?

Bada, honako hau adierazten du:

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna.

2. Nafarroako Gobernuko lehendakariaren erantzuna.

3. Ez da ageri aurreproiektu edo proiektu bat idaztera iritsi zenik, ezta hari dagozkion aurrekontu azterketarik ere, baizik eta kalkulu orientagarriak eta azterketa arrunt aurretikoak, jasotako ezaugarri teknikoen eta azpiegituren arabera aldatzen zirenak. Aurretiko azterketa horiek, parlamentuko aurreko eskaeretan jada emandakoek, ez zuten geroago garapenik, Europako Next Generation funtsetik eratorritako finantzaketa lortzeko aukera indargabetu baitzen.

4. Era berean, zifra haiek ere baziren orientagarriak, eta aurretiko azterketetan jasota zeuden.

5. Esan bezala, ez da ageri exekuzio-proiektu edo -aurreproiekturik egitera iritsi zenik.

6. Ez; parlamentuko zenbait erantzunetan azaldu bezala, Nafarroako Gobernuak proiektuari uko egin zion, ez baitzion bideragarri iritzi Next Generation funtsen finantzaketarik ezagatik. Horrenbestez,

ez zen egin inolako administrazio-izapiderik finantzaketa onartzeko edo ukatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00019. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00019):

Ez, Tuterako Reina Sofía ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuak ez du buruztarik atxikita.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00020. Galdera, Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruz egindako galderaren

erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26-PES-00020 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Ba al dago Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarentzat HP eta Google enpresen produktuen eta zerbitzuen kontratazioak, erosketak eta erabilerak dakarren urteko zenbateko ekonomikoaren kuantifikaziorik?

a) Google

Hezkuntza Departamentuak ez du zuzeneko kontraturik Googlerekin. Lizentziak Erosketa Sistema Dinamikoaren bidez kontratatzen dira, enpresa esleipendun baten bidez.

Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusiaren abenduaren 18ko 300/2025 Ebazpenaren bidez, Telefónica Soluciones de Informática y Comunicaciones de España SAU enpresari (IFK: A78053147) Google Plus-Student-1User-1Mo 36 Months Fixed Term lizentziak hornitzeko kontratua adjudikatzea xedatu zen, lizentzia digitalak erosteko sistema dinamikoaren babesean.

Google Workspace for Education Plus lizentziak 36 hilabeterako kontratatuta daude gaur egun, eta urteko kostua 489.877,28 eurokoa da (BEZa barne).

Era berean, lizentzia digitalak erosteko sistema dinamikotik eratorritako 1004_SDC_22_01_078 prozeduraren bidez, Xenon Computer SLk (IFK: B20707378) Google AI Pro for Education lizentziak hornitu ditu, 18.150 euroan, BEZa barne.

b) Hewlett Packard (HP - HPE)

2025ean izapidetutako IKT gailuak hornitzeko prozeduretan, HPk zenbait kontratazio prozesutan parte hartu du, zuzenean edo integratzaileen bidez, baina ez da esleipendun gertatu.

Hewlett Packard Servicios España SLri azkenaldian adjudikatutako kontratu bakarra birtualizaziorako zerbitzari (VDI) baten hornidurarena izan da (1004_SDC_25_01_011 espedientea).

Adjudikazioa zenbait enpresaren arteko lehia prozedura bat ireki eta balorazio irizpide objektiboak aplikatu ondotik egin zen, eta Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusiaren abenduaren 31ko 351/2025 Ebazpenaren bidez formalizatu zen. Ebazpen horren bidez, birtualizaziorako zerbitzari baten hornidura adjudikatu zitzaion, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetarako erosketa sistema dinamikoaren babesean, Hewlett Packard Servicios España SL enpresari (IFK: B82591470), 71.118,14 euroko zenbatekoan, BEZa barne.

Ez dago urteko kontratazio errepikaririk HPrekin.

Hezkuntza Departamentuak neurririk aurreikusitako al du HP eta Google enpresen produktu eta zerbitzuen kontratazioa, erosketa eta erabilera baztertzeko?

Hezkuntza Departamentuak ez du neurririk hartu enpresa jakin batzuk kontratazio-prozeduretatik kanpo uzteko.

Kontratu Publikoei buruzko 2018ko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak eta aplikatzekoa den Europako araudiak arautzen dute Departamentuaren jardueran, lehia askearen, tratu berdintasunaren eta eragile ekonomikoen arteko diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraikiz.

Ez Europar Batasuneko araudiak, ezta Espainiako legediak ere ez dituzte debekatzen gaur egun erabiltzen diren irtenbide teknologikoak. Ondorioz, muga espezifikoak ezartzen dituen goragoko mailako arau-xedapenik ezean, Departamentuak ezin du murrizketa gehigarririk sartu kontratazio publikoko prozeduretan.

Departamentuaren lehentasuna da hezkuntza-zerbitzu publikoaren jarraitutasuna, egonkortasuna eta segurtasuna bermatzea, eta ziurtatzea indarrean dagoen lege-esparrua betetzen dela eta ikastetxeei, irakasleei, ikasleei eta familiei zerbitzu digitalak behar bezala ematen zaizkiela.

Iruñean, 2026ko otsailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-26/PES-00021. Galdera, modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak idazkia igorri du, Ganberaren Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoaren babesean, informazio eskaera egiteko (11-26-PES-00021). Hezkun-

tzako kontseilariak haxe jakinarazten du hari erantzunez:

Bai Nafarroako Gobernuako Eskubide Soziale-tako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak, bai Fiskaltzak badakite zenbait adingabe ez daudela Nafarroako Foru Komunitatearen hezkuntza administrazioaren kontrolaren pean.

Duela gutxi, departamentuen arteko bilera bat egin da, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko eta Hezkuntza Departamentuko ordezkariak parte hartuta, egoera gaur egun zertan den aztertzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, jakitun egon zaitzen eta behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00022. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko urtarrilaren 30eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-26/PES-00022 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Lurraldea eta Hirigintza Antola-

tzeko foru lege-proiektuari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak hau jakinarazten du:

Administrazio-izapidetzearen zein fasetan dago Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektua?

- Lehen hiru faseak gainditu dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluaekin bat etorritik:

- “Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Lege berrirako oinarriak” dokumentua egitea.

- Lege-xedapena egiteko prozedura hasteko erabakia.

- Aurretiazko kontsulten fasea.

• Une honetan prozesuaren laugarren fasea aurreratuta dago: foru lege-aurreproiektua egitea.

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du onestea foru-lege proiektu hori Gobernuaren bilkuran?

Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak foru-lege proiektua gobernu-bilkuran 2026ko azken hiruhilekoan onestea aurreikusten du.

Nahitaezko zer txosten eta zer administrazio-edo kontsulta-izapide geratzen dira betetzeko, Nafarroako Gobernuak onetsi aurretik?

Izapideak:

– Aurreproiektua idaztea.

– Kontsultak ukitutako Departamentuei 11/2019 FAREN 132. artikulua araberako Landa Garapena eta Ingurumena; Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalekoa; Etxebizitza, Gazteria eta Migrazio Politikak eta Lurralde Kohesioa.

– Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena.

– Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren txostena.

– Araugintzako Zerbitzuaren txostena.

– Koordinazio Batzordea.

– Nafarroako Gobernuak onestea.

Nahitaezko txostenei eta memoriei dagokienez, 11/2019 FAREN 132.3 artikuluaekin bat etorriz, honako hauek dira:

• Arau-memoria.

• Memoria ekonomikoa.

– Aurrekontuen ZNaren txostena.

– Ogasuneko kontu-hartzaile delegatuaren txostena.

• Justifikazio-memoria.

• Antolamendu-memoria.

– Funtzio Publikoaren ZNaren txostena.

• Generoaren araberrako eraginaren txostena.

• Irisgarritasunaren eta desgaitasunaren eraginari buruzko txostena.

• Lurralde Kohesiorako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiaren txostena.

Iruñean, 2026ko otsailaren 16an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00023. Galdera, Caparrosoko Kristo Santuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Caparrosoko Kristo Santuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-26/PES-00023 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Ba al dago higiezinaren plano-jasotze egokirik?

Bai, 2014. urtean Caparrosoko Udalak "El Cristo" eraikinaren planoak egitea agindu zuen. Neurketak eskaner laser bidez eta drone bat erabiliz egin zen; horrenbestez, planoen irudikapena metriko eta geometrikoki zintzoa da.

2. Egin al dira aurretiazko azterlanak informazio espezializatua eskuratzeko higiezinaren egituraren kontserbazio egoerari buruz?

Bai, 2015. urtean Caparrosoko Udalak Caparrosoko Kristoa birgaitzeko proiektua agindu zuen. Aurrekontua 1.593.958,81 eurokoa zen, BEZA barne, eta 5 fasetan antolatuta zegoen. Haietako lehena, batik bat, burua, kaperak eta dorrea sendotzea zen, eta exekuzio materialerako aurrekontua 674.472,73 eurokoa zen. Udalak, lehen faseari ekonomikoki aurre egin ezinik, proiektuaren

idazleari lehen fasea doitzeko eskatu zion 2017an, dorrea sendotzeko eta birgaitzeko lanak bakarrik egiteko. Alabaina, 2018ko apirilean, proiektua idazten bukatzen ari zirelarik, buruko gangaren zati batek behea jo zuen, eta ondorioz, kolokan gelditu zen eraikinaren oreka, zer bilakaera izanen zuen nekez aurreikusteko moduan; hori dela eta, aurreikusitako lanak ez dira egiten ahal esku hartzen duten teknikarien eta langileen segurtasuna arriskuan jarri gabe. Egoera horrek harrezkero gauzatuak jarduketak baldintzatu ditu.

2021ean, Udalak gangak sendotzen espezializatutako bi arkitekto agindu zion honako txosten hau egiteko: Caparrosoko Kristoren elizan jarduteko azterketa, egiturazko kalkulua eta gomendioak eta haiei dagokien jarduketa-plana. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariek jakinarazi zuten, bi dokumentuek funtsezko gai hau alde batera uzten zuten: nola eduki azaldutako lanak egin behar zituzten langileen eta teknikarien segurtasuna bermatzeko bitarteko lagungarriak eta babes-neurriak.

2024an, Ondare Historikoaren Zerbitzuak ondarea kontserbatzen eta zaharberritzen espezializatutako arkitekto bati agindu zion dokumentu tekniko hau idaztea: "Buruaren eta dorrearen egituraren portaeraren azterketa eta etorkizunean esku hartzeko proposamenak".

3. Teknikari espezialisten laguntza eskatu al da higiezinaren egoera azter dezaten?

Bai, orain arteko lan guztiak ondare historikoko eraikinak zaharberritzen espezializatutako arkitektoek egin dituzte. 2021ean egindako dokumentuak idatzi zituzten bi arkitektoetako bat Manuel Fortea da, ganga historikoetan espezializatutako arkitektoa, eta 2024ko dokumentu teknikoa idatzi duen arkitektoak (Juan de Dios de la Hoz) sendotzeko obrak zuzendu ditu Lorcako lurrikarak egitura egonkortasuna arriskuan nabarmen jarritako eraikinetan.

4. Teknikariek aztertu al dituzte, dagozkion segurtasun neurriak hartuta, gangak desmuntatzeko, egitura sendotzeko eta balorazioa egiteko gauzatzen ahal diren jarduketak?

Bai, 2024an egindako dokumentuak azterketa hori egin zuen, eta gangak desmuntatzeko eta egitura sendotzeko segurtasun neurri egokiak zehaztu zituen.

Une honetan eta azterketa horren ondorioz, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Arkitektonikoaren Atala Caparrosoko Udalarekin elkarlanean ari da dagokion exekuzio-proiektua egiteko lizitazio baldintzen agiri egiteko.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 22an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00024. Galdera, Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Uharteko Virgen Blanca ikastetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-26/PES-00024 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren kontu-hartzailearen bitartez, ikastetxeko zuzendaritza taldearekin batera kudeatu du ahalik eta hezkuntza-arreta onena bermatzeko egoki irizitako antolamendu-neurriak aplikatzea.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua da Hezkuntza Departamentuaren tresnarik onena Nafarroako hezkuntza-sisteman behar bezalako hezkuntza-arreta bermatzeko. Hona hemen Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak hezkuntzako ikuskapenari ematen dizkion funtzioak:

151. artikulua. Hezkuntzako ikuskaritzaren funtzioak.

Hezkuntzako ikuskaritzaren funtzioak honako hauek dira:

a) Ikastetxeen funtzionamendua eta ikastetxeek garatzen dituzten proiektuak eta programak pedagogiaren eta antolamenduaren ikuspuntutik ikuskatzea, ebaluatzea eta kontrolatzea, lege honek babesten duen autonomia-esparrua errespetatuz.

b) Irakaslan eta zuzendaritza-lana ikuskatzea eta horien etengabeko hobekuntzan laguntzea.

c) Hezkuntza-sistemaren eta sistema osatzen duten elementuen ebaluazioan parte hartzea.

d) Ikastetxeetan hezkuntza-sistemari lotutako legeak, araudiak eta indarrean dauden gainerako xedapenak betetzeaz arduratzea.

e) Lege honetan jasotako printzipioak eta balioak (emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko direnak barne) betetzeaz eta aplikatzeaz arduratzea.

f) Hezkuntza-komunitateko sektore guztiei beren eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko gaitan aholkuak, orientabidea eta informazioa ematea.

g) Hezkuntza-administrazioek eskatutako edo hezkuntzako ikuskaritzak errealitateaz duen ezagutzari lotutako txostenak egitea, arauzko bideetatik.

h) Zuzendaritza-taldeei orientazioa ematea, elkarbizitza, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta gatazken konponketa sustatzeko neurriak hartu eta horien jarraipena egiteko, eta, beharrezkoa denean, bitartekaritza-prozesuak bultzatzea eta haietan parte hartzea.

Hezkuntza Departamentuak ez du arrazoi objektiborik ikusten ondorioztatzeko Uharteko Virgen Blanca ikastetxean irakasle-funtzioak dituen inor dagoenik funtzioak egoki betetzeko ezgaituta. Horregatik, arrazoi objektiborik ere ez du ikusten inori eragotz dakion ikastetxe batean irakasle-funtzioa betetzeko eskubidea.

Azkenik, jakinarazten irakaslea zerbitzu-eginkizunetan dagoela jarduneko zerbitzuan, osasun arazoengatik, Uharteko Virgen Blanca HLHIPn 2026ko abuztuaren 31ra arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, jakitun egon zaitezten eta behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-26/PES-00025. Galdera, Volkswagen Navarraren ez-betetzeei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Volkswagen Navarraren ez-betetzeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00025). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak ematen duen informazioa:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua ez da departamentu eskuduna Aznal andreak egindako galderei erantzuteko. Zure galderak lanaren arloko departamentu eskudunari egin beharko dizkiozu.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 17an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-26/PES-00026. Galdera, Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Alvia trenak Altsasuko geltokian geldialdi komertzial berriak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00026). Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Departamentuak uste du positiboa izanen litzatekeela Sakanako biztanleentzat Altsasutik igarotzen diren aipatutako 7 trenek herri horretan merkataritza-geldialdia egitea?

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak ez du baloratzen Renfe Bidaiariak-ek ezarritako baldintzetara mugatu gabeko egoera bat.

Departamentuak kudeaketarik egin al du edo egiteko asmoa al du ministerio eskudunaren aurrean beste tren horiek Sakanako herritarrei eskaini ahal izateko?

Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusian ez dugu horren berririk.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-26/PES-00027. Galdera, abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko 11-26/PES-00027 galdera egin du abeltzaintzako eta nekazaritza-elikagaien hondakinak biometaniza-

zioan erabiltzeari buruz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut galderari erantzuteko:

Bai, erabiltzen ahal dira. Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak ez du debekurik ezartzen. Hala ere, Legeak berak xedatzen du instalazio bakoitzak baimenduta dituen hondakinak baino ez dituela tratatzen ahal, eta kudeatzaileak hondakin bakoitza egiaztatu eta onartu behar duela baimenaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00028. Galdera, simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak simaurren kudeaketari buruzko foru dekretua taxutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-26/PES-00028 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Simaurrak Kudeatzeko Foru Dekretuari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Foru Dekretu bat prestatzeko lanean ari da abeltzaintzako gorozkien eta digestatoen aplikazio agronomikoa eta haiekin lotutako kontrol eta egiaztapen prozedurak arautzeko.

Dekretuaren zati garrantzitsu bat GESPUR eta VEGA aplikazioak garatzea da, eta haren artikulak idaztearekin batera lantzen ari da horretan. Aplikazio horiek balorizazio agronomikoa arautzen dute, eta aukera ematen dute deklarazio telematikoa denbora errealean egiteko, bai eta nekazaritzako lurzati harrera gaitasuna eta egokitasuna aztertzeko ere, instalazioek emandako datuen arabera.

GESPUR aplikazio informatiko bat da, eta aukera ematen du eremu jakin bateko nekazaritza lursailek ongarrri organikoak hartzeko zer gaitasun duten ezagutzeko, eremu horretan bertan dauden instalazioen ekoizpen eta balorizazio gaitasunen arabera.

VEGA aplikazio informatiko bat da, eta aukera ematen du ongari organikoen aplikazioaren datuak denbora errealean telematikoki deklaratzeko eta erregistratzeko. Aitortutako datu horietatik abiatuta, aplikazio mapak sortzen ditu eta lursailaren benetako egoera ezagutzeko aukera ematen du.

Gaur egun, GESPUR eta VEGA aplikazioen garapena arrunt aurreratuta dago, eta ezartzeko azken fasean; egitura nagusian eraginik ez duten alderdi tekniko txiki batzuk ebaztea besterik ez da gelditzen.

Hain zuzen ere, 2025eko uztailaren 30ean, landako aplikazioaren eta balorizazioaren simulazio bat egin zen Beriainen, zera egiaztatzeko, ea VEGA aplikaziorako garatutako web zerbitzuak behar bezala funtzionatzen zuen eta datuak egoki eta denbora errealean transmititzen zituen.

Aldi berean, Foru Dekretuaren dokumentua idazteko lan teknikoak egin dira. 2025eko maiatzaren 29tik ekainaren 17ra bitartean, parte hartzeko epea jarri zen, Herritarren Parte-hartzeko plataformaren bidez ekarpenak egiteko. Prozesu horrekin foru-dekretu bat onetsi aurreko jendaurreko kontsultaren izapidea egin da. Foru-dekretu horren bidez abeltzaintzako gorozkien eta digestatzen aplikazio agronomikoa eta haiekin lotutako kontrol eta egiaztapen prozedurak arautuko dira. Parte hartzeko epea bukatu zen eta 5 proposamen jaso ziren. (Erreferentzia: PCN-PART-2025-05-8942)

2025eko irailaren 23an, aplikazioak aurkeztu zitzaizkien Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiarri eta nekazaritzako eta abeltzaintzako sindikatuei Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan.

Bilera hori egin eta gutxira, Parlamentuan azaroaren 7ko 14/2025 Foru Legea onetsi zen, Ingurumen Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legea aldatzen duena, zeinak biometanizazio instalazioak ezartzeko luzamendu bat ezartzen baitu.

Foru lege horrek Departamentuen arteko Batzorde Tekniko bat sortzea jasotzen du, Landa Garapenaren, Lurralde Kohesioaren, Industriaren, Trantsizio Ekologikoaren eta Osasunaren arloetan eskumena duten departamentuetako ordezkariak osatua. Batzorde hori 2026ko otsailaren 3an deitu zen, eta agindutako lana egiten hasi da.

Testuinguru horretan, egokitzat jotzen da bi arau garapenak bat etortzea: abeltzaintzako gorozkien eta digestatzen aplikazio agronomikoa arautuko duen Foru Dekretua, eta Nafarroan biometanizazio instalazioen ezarpena arautuko duen Lege berria, biek jorratzen duten gaia hagitz lotua baitago; alegia, digestatzen aplikazioaren berezitasunak.

Horrenbestez, abeltzaintzako gorozkiak eta digestatzen aplikatzeko Foru Dekretua arrunt fase aurreratuan dagoen arren, egokitzat jotzen da hori berrikustea, biometanizazioaren arloan aurreikusten den legedi berrirako, Dekretuaren testua jendaurreko entzunaldira eta informaziora eraman aurretik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-26/PES-00029. Galdera, Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Emilio Jiménez Román jaunak Sarrea Euskal Udalekuak elkarteak Abaigarren eta Goñin udalekuak irekiko dituela iragarri ondoren hartuko diren neurriei buruz egindako galderaren erantzuna,

Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 6ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Talde Mistoari atxikitako foru-parlamentari Emilio Jiménez Román jaunak elkarte baten udalekuei buruzko 11-26/PES-00029 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak hau jakinarazten du:

Gazteekin egindako jarduerak kontrolatu eta ikuskatzeko kasuak indarrean dagoen araudian jasota daude. Nafarroako Gazteriaren Institutuak, bere eskumeneko arloan, gazteekin aire zabalean

egindako jarduerak arautzen ditu, zeharka udako jardueretan esku hartzen duten gainerako departamentuekin: NOPLOI, Osasunbidea, Ingurumena, Babes Zibila, Udaltzaingoa, Guardia Zibila.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00031. Galdera, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Martzillako behaketa- eta harrera-zentroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00031):

Larrialdietako kide eta kidegoak zentrorra joan ziren haren arduradunek 112ra deitu ondotik, suteetako mauka irekitzeak uholde txikia eragin baitzuen beheko solairuan.

Egun haietan egoiliar adingabe hauek zeuden:

– 2025eko abenduaren 2an: 49

– 2026ko urtarrilaren 2an: 38

– 2026ko otsailaren 2an: 45

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-26/PES-00032. Galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Miteco-k 2030erako plangintza elektrikoaren zirriborroa argitaratu ondoren Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin izandako hartu-emanari buruzkoa, 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00032). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak ematen duen informazioa:

Zirriborroa argitaratu ondotik, honako kontaktu hauek egin dira:

- 2025eko azaroaren 24a

- Modalitatea: online

- Bertaratutakoak: Nafarroako Gobernua: Mikel Irujo, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria; Iñigo Arruti, Enpresen Sustapenerako eta Azpiegituretako zuzendari nagusia; Laura Larraya, Industria Anto-

lamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeeen Zerbitzuko zuzendaria.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa: Joan Groizard, Energiako estatu-idazkaria, eta taldeko bestelako pertsonak.

- Tratatutako gaiak: Departamentuak desadostasuna agertu dio argitaratu duten zirriborroaren edukiari, eta aurreratu du 2025eko abenduaren 16a baino lehen alegazioak aurkeztuko dituela.

Energiaren konferentzia sektoriala 2025eko abenduaren 1ean egin zen, eta Mikel Irujo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak parte hartu zuen. Hain izan ziren, orobat, gainerako autonomia-erkidegoetako ordezkari instituzionalak, bai eta Ministerioko arduradunak ere. Era berean, abenduaren 11tik 17ra bitartean Energiaren konferentzia sektoriala prozedura idatziz egin zen.

Gainera, Irujo kontseilariak bi solasaldi labur izan ditu Greizard estatu-idazkariarekin, eta haien bitartez helarazi zaio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa ari zitzaiela erantzuten Nafarroako Gobernuak aurkeztutako alegazio guztiei.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-26/PES-00033. Galdera, etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak etxebizitza-ikuskaritzan plaza berriak sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-26/PES-00033 galdera egin du. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria naitzen aldetik, galdera horrekin lotuta jakinarazten

dizut zuzentzen dudan Departamentuak datuaren berririk ez duela, arlo horretan eskumenik ez baitu. Hori horrela, eskaera Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari egitea aholkatzen zaitut, hark baititu eskumenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren abuztuaren 17ko 10/2023 Foru Dekretuaren arabera eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen azaroaren 15eko 241/2023 Foru Dekretuaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez.

11-26/PES-00034. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kirurgiarako robot bat lizitatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parla-

mentari Leticia San Martín Rodríguez andreak eginitako informazio eskaerari loturik (11-26/PES-00034):

Teknologia oro gehitzea ebaluatzeak merkatuan dauden aukeren eta O-NOZen behar espezifikoen azterketa zehatza dakar, eta horrek dakar erabakiak efikaziaz kontrastatzea.

Egitea noiz aurreikusita dagoen, aurreikusita dago lizitazioa Kontratazioaren Atarian 2026ko martxoaren 20an egotea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 19an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00035. Galdera, Lanbide Heziketako praktikei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Lanbide Heziketako praktikei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak 11-26/PES-00035 galdera idatzia egin du. Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak informazio hau ematen du:

Bigarren mailako ikasleek enpresan praktikak egiteari lehentasuna emateko, irizpide akademikoak eta titulaziorako eskubidea bermatzekoak hartu dira kontuan.

Bigarren mailako ikasleak beren prestakuntza-ibilbidearen azken fasean daude, eta titulua lortzeko ezinbesteko baldintza da enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntza (EEPP) egitea.

Testuinguru honetan litekeena da enpresa laguntzaileetako prestakuntza-plazak mugatzea, horregatik lehentasunezko zat jotzen da ikasketak bukatzeko moduan dauden ikasleek aurreikusitako ikasturtean bukatzeko aukera izatea, atzeratu ez dadin titulazioa eskuratzea, ez eta lan merkatuan sartzea edo ondotiko ikasketak egitea ere.

Lehen mailako ikasleen kasuan, denbora-tarte gehigarri bat dago haien prestakuntza-ibilbidearen barruan, eta aukera dago jarduerak berrantolatzeko, ikasketak aurreikusitako bi ikasturteko epean bukatzea arriskuan jarri gabe.

EEPPko orduak berrantolatzeko aukera hori aldi baterako eta antolaketa-arrazoiengatik baino ez da izanen.

Departamentua, ikastetxeekin koordinatuta, honako hauetarako neurriak hartzen ari da:

- Prestakuntza-egonaldien plangintza malgutztea,
- Egiten ahal diren aldiak luzatzea,
- Enpresa laguntzaileen profilak dibertsifikatzea, eta
- Erabilgarri dauden plazen esleipena optimizatzea.

Helburua da ikasle guztiak beren prestakuntza-prozesuarekin lotutako praktikak egin ahal izatea, eta bermatzea curriculumean ezarritako ikasketaren emaitzak hasieran aurreikusitako denboran eskuratuko dituztela.

Plangintza akademikoak gorabehera hori kontuan hartzen du, eta EEPPko orduak malgutasunez antolatzeko aukera ematen du. Ildo horretan, gogorarazten da egiteke dauden praktikak bigarren ikasturtearen garapenaren barruan sartzeko ahal direla, prestakuntza-egutegiak eta -sekuentziak doitzen ahal direla, eta ikastetxeek programazioa egokitzeko antolamendu-autonomia dutela, betiere ikasketaren emaitzak betetzen direla bermatuta. Antolamendu-malgutasun horrek aukera ematen du praktikak egitea eta prestakuntza-ibilbidearen garapen normala bateragarri egiteko, ikasketak bukatzea eragotzi gabe.

Azkenik, adierazi behar da Hezkuntza Departamentuak uste duela ikastetxeek badituztela behar diren baliabideak enpresetako prestakuntza-egonaldiak kudeatzeko. Adierazi behar da, halaber, Hezkuntza Departamentuak egoeraren etengabeko jarraipena egiten duela eta ikastetxeekin koordinatuta lan egiten duela egokitzapenaren ondorioz sortzen diren antolamendu-beharrei erantzuteko. Esparru horretan, ikastetxeek laguntzen jarraituko zaie enpresa-sarearekin lankidetzak berriak bilatzen eta finkatzen, prestakuntza-egonaldiak kudeatzeko prozesuak optimizatzen eta haien garapena errazten duten antolaketa-neurriak hartzen. Hori guztia, ikasleek prestakuntza praktikoa baldintza egokietan betetzen dutela eta ikasketak normaltasunez bukatzen ahalko dituztela bermatzeko.

Iruñean, 2026ko martxoaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00036. Galdera, Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Gobernuak TEDER-Tierra Estella Desarrollo Rural elkarteari emandako funts publikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galderarekin (11-26/PES-00036) loturik, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, eta zuzentzen dudana Departamentuari dagokionez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari informazio-eskaera hori helarazi ondotik, jakinarazten dizut Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko sozietate publikoen erregistroetan partida bakar bat dagoela TEDER elkartearentzat, eta haren informazioa taula honetan jasotzen dela:

SOZIEKATE PUBLIKOA	NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA SA
EKITALDIA	2025
EMATEKO DATA	2025/12/18
EMANDAKO ZENBATEKOA	3.600,00 €
ORDAINDUTAKO ZENBATEKOA	3.600,00 €
PROGRAMA/PARTIDA	Enkargu honetan sartzen da: 820001 82500 2276 467302 MRR - NASUVINSArako enkargua
XEDEA ETA HELBURUA	KEB Nafarroarentzako prestakuntza energetikoko ikastaroa: argi/gas fakturazioa, kontsumo elektrikoaren analisia, pobrezia energetikoa eta egindako beste proiektu batzuk, eta aholkularitza hirugarrenei (toki entitateak, enpresak eta ETEak).
EMATEKO PROZEDURA	Zuzeneko emakida. Kontratu txikia
ARAU, EBAZPENA, AKORDIOA	Merkataritza-enpresen berezkoa
JUSTIFIKAZIO EGOERA	Justifikatua
JARRAIPENA	Ez

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez.

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-26/PES-00036 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko Turismoko Zuzendaritza Nagusiak laguntza hauek eman dizkio Estellerriko Landa Garapena (TEDER) elkarteari 2024ko eta 2025eko ekitaldietan:

Zuzeneko dirulaguntza TEDER elkarteari "Estellerria Maitia - Besarkatu gure lurraldea" PSTDa exekutatzeko. Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (NextGenerationEU).

1. Laguntza eman duen departamentua, organismoa edo entitatea.

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko Turismo Zuzendaritza Nagusia.

2. Aurrekontu-ekitaldia eta emateko data.

Aurrekontu-ekitaldia: 2024ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

Emateko data: 2024ko ekainaren 24a

3. Emandako zenbatekoa eta, kasua bada, azkenean ordaindutako zenbatekoa.

4.740.000 euro eman eta ordaindu dira.

4. Aurrekontu-programa eta finantzatzeko erabiliko den partida zehatza.

Programa-proiektu kodea: A30001

A3 Turismo Zuzendaritza Nagusia

A30001 Turismoaren ordenamendua, kudeaketa eta kalitatea

Aurrekontuko partida:

A30001-A3100-7819-432104 [PEP: E-23-000593-01]: MRR Estellerriko PSTDrako transferentzia

5. Dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea eta helburua.

TEDERek 2022ko Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planen ezohiko deialdian parte hartu zuen, eta proiektu bat aurkeztu zuen ("Estellerria Maitia-Besarkatu gure lurraldea" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana), Nortasun Turistikoa duen Landa Helmugaren kategorian. Nafarroako Foru Komunitateko Aholku Batzordeak gaitzat jo ondotik, eta, Turismoaren estatu-idazkaritzak ezarritako prozedura betez, Nafarroako Foru Komunitateko 2022-2024 aldirako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planean sartu zen, eta 4.740.000 euroko kredituaren erakunde onuradun izendatu zen, "Estellerria Maitia-Besarkatu gure lurraldea" PSTDan ezarritako jarduerak finantzatzeko.

Laguntzaren xedea eta helburua da onuradunak proposatutako jarduerak finantzatzea, "Estellerria Maitia- Besarkatu gure lurraldea" Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planean (PSTD)

deskribatutakoaren arabera. Jarduketak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren helburuekin lotutako lehentasunezko lau ardatzen inguruan antolatuko dira:

1. ardatza. Trantsizio berdea eta jasangarria.

2. ardatza. Energia-eraginkortasuna hobetzea.

3. ardatza. Trantsizio digitala.

4. ardatza. Lehiakortasuna.

6. Emateko prozedura (norgehiagoka, zuzeneko emakida, hitzarmen izenduna edo beste bat).

Zuzeneko emakida, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren, TEDER Elkartearen eta Zuñigako Udalaren arteko hitzarmenaren bidez bideratua, TEDER Elkarteak toki erakunde hori izendatu baitu PSTD planaren exekuzio-jarraipenari buruzko informazioa emateko.

7. Emakida babesten duen araua, ebazpena edo erabakia.

11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

462E/2024 Ebazpena, ekainaren 24koa, Turismo zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez TEDER Elkarteari dirulaguntza ematen baitzaio "Estellerria Maitia-Besarkatu gure lurraldea" PSTDa exekutatzeko, eta emandako dirulaguntzaren aurre-rapen bat ordaintzen baita. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana - Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU.

8. Justifikazio-egoera (justifikatua, justifikatu zain, errekerimenduekin, itzulketekin edo erregularrizazioekin).

Gaur egun, "Estellerria Maitia-Besarkatu gure lurraldea" PSTDn jasotako jarduketak egiten ari dira.

"Helmugetako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planetan" jasotako proiektu guztiak bukatzeko azken eguna 2026ko bigarren hiruhilekoa dela ezartzen du CID 221 mugarrak. Hori horrela, ekainaren 30a da "Estellerria Maitia-Besarkatu gure lurraldea" PSTDan jasotako jardueren exekuzioa justifikatzeko azken eguna.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion (11-26/PES-00036), eta, horrekin loturik, hauxe jakinarazten du Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak:

Zer dirulaguntza, laguntza, hitzarmen, enkargu, ekarpen ekonomiko edo funts publikoen transferen-

tzia jaso ditu, izaera juridikoa edozein dela ere, Estellerriko Landa Garapena elkarteak (TEDER), Nafarroako Gobernuaren, haren departamentuen, erakunde autonomoen, sozietate publikoen edo mendeko entitateen aldetik, 2024ko eta 2025eko ekitaldietan?

- 0011-4980-2024-000000 - RuralNav 2024.
- 0011-4980-2025-000000 - RuralNav 2025.
- 0011-5183-2025-000000 - Egoitza berria egokitzeko inbertsioak.

0011-4980-2024-000000 RuralNav 2024.

Departamento, organismo o entidad concedente	Dirección General de Administración Local y Despoblación
Ejercicio presupuestario y fecha de concesión	10 de octubre de 2024 mediante Resolución 343E/2024
Importe concedido	125.000,00 euros
Importe finalmente abonado	114.653,58 euros
Programa presupuestario y partida concreta con cargo a la que se financia	210002-21400-4819-922109 Convenios con GAL para actuaciones de reto demográfico y lucha contra la despoblación
Objeto y finalidad de la subvención o ayuda	Afrontar el reto demográfico y la despoblación a través del desarrollo de iniciativas innovadoras en los ámbitos rurales
Procedimiento de concesión (conurrencia competitiva, concesión directa, convenio nominativo u otro)	Concesión Directa
Norma, resolución o acuerdo que ampara la concesión	Ley foral 11/2005, de 9 de noviembre, de subvenciones
Estado de justificación (justificada, pendiente, con requerimientos, con reintegros o regularizaciones)	Justificada
Existencia o no de controles, informes de seguimiento, fiscalización o comprobaciones sobre la correcta aplicación de los fondos	El beneficiario presentó la justificación en plazo y tras su oportuna revisión por parte del Servicio de Reto Demográfico y Vertebración Territorial se estimó como correcta de modo que, al entenderse cumplido su objeto se procedió al abono de la misma.

0011-4980-2024-000000 RuralNav 2025.

Departamento, organismo o entidad concedente	Dirección General de Administración Local y Despoblación
Ejercicio presupuestario y fecha de concesión	29 de mayo de 2025 mediante Resolución 147E/2025
Importe concedido	125.000,00 euros
Importe finalmente abonado	125.000,00 euros
Programa presupuestario y partida concreta con cargo a la que se financia	210002-21400-4819-922109 Convenios con GAL para actuaciones de reto demográfico y lucha contra la despoblación
Objeto y finalidad de la subvención o ayuda	Afrontar el reto demográfico y la despoblación a través del desarrollo de iniciativas innovadoras en los ámbitos rurales
Procedimiento de concesión (concurcencia competitiva, concesión directa, convenio nominativo u otro)	Concesión Directa
Norma, resolución o acuerdo que ampara la concesión	Ley foral 11/2005, de 9 de noviembre, de subvenciones
Estado de justificación (justificada, pendiente, con requerimientos, con reintegros o regularizaciones)	Justificada
Existencia o no de controles, informes de seguimiento, fiscalización o comprobaciones sobre la correcta aplicación de los fondos	El beneficiario presentó la justificación en plazo y tras su oportuna revisión por parte del Servicio de Reto Demográfico y Vertebración Territorial se estimó como correcta de modo que, al entenderse cumplido su objeto se procedió al abono de la misma.

0011-5183-2025-000000 Inversiones para adecuación de la nueva sede.

Departamento, organismo o entidad concedente	Dirección General de Administración Local y Despoblación
Ejercicio presupuestario y fecha de concesión	30 de julio de 2025 mediante Resolución 248E/2025
Importe concedido	50.000,00 euros
Importe finalmente abonado	50.000,00 euros (anticipo)
Programa presupuestario y partida concreta con cargo a la que se financia	210001-21300-7609-2616X8 (E) Convenio con Asociación TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) inversiones para adecuación nueva sede
Objeto y finalidad de la subvención o ayuda	Ayudar a la asociación en la inversión necesaria para trasladar su sede desde la oficina de la Mancomunidad de Montejurra a una nueva dependencia
Procedimiento de concesión (concurencia competitiva, concesión directa, convenio nominativo u otro)	Concesión Directa
Norma, resolución o acuerdo que ampara la concesión	Ley foral 11/2005, de 9 de noviembre, de subvenciones
Estado de justificación (justificada, pendiente, con requerimientos, con reintegros o regularizaciones)	Pendiente de justificación (plazo hasta 16 de marzo de 2026)
Existencia o no de controles, informes de seguimiento, fiscalización o comprobaciones sobre la correcta aplicación de los fondos	29/12/2025 Se justifica el inicio de las actuaciones subvencionables

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-26/PES-000036 galdera idatzia egin du. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak atsegin handiz erantzuten die egingdako galderei honako taula honen bitartez:

1. Laguntza eman duen departamentua, organismoa edo entitatea.

2. Aurrekontu-ekitaldia eta emateko data.

3. Emandako zenbatekoa eta, kasua bada, azkenean ordaindutako zenbatekoa.

4. Aurrekontu-programa eta finantzatzeko erabiliko den partida zehatza.

5. Dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea eta helburua.

6. Emateko prozedura (norgehiagoka, zuzeneko emakida, hitzarmen izenduna edo beste).

7. Emakida babesten duen araua, ebazpena edo erabakia.

8. Justifikazio-egoera (justifikatua, egiteke, errekerimenduekin, itzulketekin edo erregularizazioekin).

9. Funtsen aplikazio egokiari buruzko kontrolrik, jarraipen-txostenik, fiskalizazio- edo egiaztapenik dagoen ala ez.

Zerbitzua	Laguntzaren izena	Programa	Emakidaren ekitaldia	Ordainketaren ekitaldia	Emandako laguntza (eurotan)	Ordaindutako laguntza (eurotan)	Aurrekontuko partida	Emateko prozedura	Ordainketa-ebazpena	Justifikazio-egoera	Fiskalizazioa eta kontrolak	Administrazio-kontrola	Lekuan bertan egin beharreko kontrola	A posteriori eginiko kontrola
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailerako laguntza (2024ko kudeaketa-, animazio-, jarraipen- eta ebaluazio-gastuetarako laguntza)	Leader	2024	2024	223.786,98	60.000,00	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	16E/2024 Ebazpena, otsalaren 15ekoa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana.	Aurreakina	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailerako laguntza (2024ko kudeaketa-, animazio-, jarraipen- eta ebaluazio-gastuetarako laguntza)	Leader	2024	2025	223.786,98	159.328,79	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	228E/2025 EBAZPENA, maiatzaren 29koa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana	Azken ordainketa	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailerako laguntza (2025eko kudeaketa-, animazio-, jarraipen- eta ebaluazio-gastuetarako laguntza)	Leader	2025	2025	223.786,98	60.000,00	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	78E/2025 EBAZPENA, martxoaren 25ekoa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana	Aurreakina	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailerako laguntza (2025eko kudeaketa-, animazio-, jarraipen- eta ebaluazio-gastuetarako laguntza)	Leader	2025	2026	223.786,98	0,00	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	-	Azken ordainketa egiteko	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1

Zerbitzua	Laguntzaren izena	Programa	Emakidaren ekitaldia	Ordainketaren ekitaldia	Emandako laguntza (eurotan)	Ordaindutako laguntza (eurotan)	Aurrekontuko partida	Emateko prozedura	Ordainketa-ebazpena	Justifikazio-egoera	Fiskalizazioa eta kontrolak	Administrazio-kontrola	Lekuan bertan egin beharreko kontrola	A posteriori eginiko kontrola
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailea babestea (TGPE) estrategia exekutatzeko laguntza: 2023ko kanpoko sustatzaileak	Leader	2023	2025	890.485,41 (bitarteko erakundea)	796.390,94 (bitarteko erakundea)	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	Batzuk	Azken ordainketa	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailea babestea (TGPE) estrategia exekutatzeko laguntza: 2024ko kanpoko sustatzaileak	Leader	2024	2026	668.249,84 (bitarteko erakundea)	0,00 (bitarteko erakundea)	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	--	Azken ordainketa egiteko	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	7119 Garapen parte hartzailea babestea (TGPE) estrategia exekutatzeko laguntza: 2024ko lokiko ekintza-taldearen sustatzaileak	Leader	2024	2026	75.511,22	0,00	720007 72300 7819 412103 NPEPE LGENF 2023-2027. Tokiko garapen parte-hartzailea (LEADER)	Hitzarmena	--	Azken ordainketa egiteko	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 5	Neuriagatik ordaindutako LGENF laguntza osoaren % 1
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	Lurralde arteko lanikidetzaren proiektua Pueblos vivos y activos- Landa herriak bizirik 2024 eta 2025	Hitzarmena	2024	2024	43.750,00	43.606,52	720007-72300-4819-412103 Hitzarmena Tokiko Ekintza Taldeekin: Cedena, Eder, Teder eta Erdialdeko Zona 'Pueblos vivos y activos'-Landa herriak bizirik proiekturako	Hitzarmena	422E/2024 EBAZPENA, 17koa, Landa Garapeneko zuzendaritza nagusiak emana	Ordainketa partziala.	Bai	Emakida egin eta ordaindu ondotik	Ez	Ez

Zerbitzua	Laguntzaren izena	Programa	Emakidaren ekitaldia	Ordainketaren ekitaldia	Emandako laguntza (eurotan)	Ordaindutako laguntza (eurotan)	Aurrekontuko partida	Emateko prozedura	Ordainketa-ebazpena	Justifikazio-egoera	Fiskalizazioa eta kontrolak	Administrazio-kontrola	Lekuan bertan egin beharreko kontrola	A posteriori eginiko kontrola
Landa Garapena eta Dibertsifikazioa	Lurralde arteko lankidetzaren proiektua Pueblos vivos y activos-Landa herriak bizirik 2024 eta 2025	Hitzarmena	2024	2025	43.750,00	43.747,26	720007-72300-4819-412103 Hitzarmena Tokiko Ekintza Taldeekin: Cederna, Eder, Teder eta Erdialdeko Zona 'Pueblos vivos y activos-Landa herriak bizirik' proiekturako	Hitzarmena	397E/2025 EBAZPENA, 24koa, Landa Garapeneko zuzendaria nagusiak emana	Azken ordainketa	Bai	Enakida egin eta ordaindu ondotik	Ez	Ez
Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzua	Elkarteentzako dirulaguntzak ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeko.	Laguntzak	2024	2024	3.284,86	3.284,86	740008-74800-4819-456200: % 0,7ko funtsa. Ingurumen-hezkuntza, boluntarotza, lurraldearen zaintza	Deialdia	289/2024 EBAZPENA, 27koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana	Azken ordainketa	Bai	Enakida egin eta ordaindu ondotik	Ez	Ez
Ingurumen Hezkuntzaren, Kalitatearen eta Zaintzaren Zerbitzua	Elkarteentzako dirulaguntzak ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeko.	Laguntzak	2025	2025	9.310,85	8.666,29	740008-74800-4819-456200: % 0,7ko funtsa. Ingurumen-hezkuntza, boluntarotza, lurraldearen zaintza	Deialdia	1440E/2025 EBAZPENA, 9koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana.	Azken ordainketa	Bai	Enakida egin eta ordaindu ondotik	Ez	Ez

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00036):

Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuak apirilaren 9ko 691/2014 Ebazpenak araututako dirulaguntzak eman dizkio Estellerriko Landa Garapeneko Elkarteari (aurrerantzean, TEDER) —691/2014 Ebazpena, apirilaren 9koa, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, toki entitateentzako eta haien menpeko edo haien loturiko entitateentzako dirulaguntzak arautzen dituen, ekintzailetza bultzatzen duten zerbitzuak eman ditzaten, maiatzaren 7ko 1332E/2024 Ebazpenak aldatu zuena—.

Dirulaguntzen helburua da finantzatzea erakunde onuradunek kontratatutako enpleguko eta tokiko garapeneko eragileen soldata-kostuak eta enpresen gizarte-segurantzarako kotizazio-kostuak. Eragile horiek ekintzaileei arreta-, informazio- eta laguntza-zerbitzuak eman behar dizkiete dagokien lurralde-eremuan, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek garatu behar dituzte: negozio-aukerak aztertze eta identifikatzeko jarduerak, ekintzaileak identifikatu eta erakartzeko jarduerak, espirtu ekintzailea sentibilizatzeko eta zabaltzeko ekintzak, enpresa-proiektu bat egiteko informazio orokorra eta jarraitu beharreko urratsak, eraturako enpresa berriei laguntzea eta abar.

Deialdiaren bederatzigarren oinarriak aurreikusten duen bezala, laguntzak emateko prozedura norgehiagoka-araubidean izapidetzen da I. eranskinean ezarritako eremu bakoitzean, eremu horietako bakoitzean aurkeztutako eskabideak konparatuta, haien arteko lehentasuna ezartzeko hamargarren oinarrian ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

Laguntzen ordainketak aurrekontuko 950001 96100 4819 241105 aurrekontuko partidaren kargura egin ziren. Toki garapena sustatzeko laguntzak.

2024an, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2024ko

abuztuaren 1eko 2869E/2024 Ebazpenaren bidez, 136.400 euro eman zitzaizkion TEDER elkarteari. Zenbatekoa osorik ordaindu zen, erakundeak diruz lagundutako jarduera justifikatu ondotik, deialdiaren 13.1.a) oinarriak eskatzen duen bezala. Espedientea bukatuta dago.

2025ean, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2025eko maiatzaren 19ko 1909E/2025 Ebazpenaren bidez, 136.400 euro eman zitzaizkion TEDER elkarteari. Zenbateko hori ordaintzeke dago. Deialdiaren 13.2 oinarriak aurreikusten duenez, emakidaren urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu behar da exekuzio-memoria teknikoa, eta exekuzioaren azken memoria ekonomikoa, berriz, diruz lagundutako jarduera egin eta hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen. Dokumentazioa Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren unitate kudeatzaileak berrikusiko du, ordaindu aurretik.

Hala emakida nola bonua Kontu-hartzailatza delegatuaren bidez fiskalizatzen dira. Azaldu bezala, 13.2 oinarriak aurreikusten du jarduerak exekuzioari buruzko memoria bat igortzea, eta bertan jasota egotea artatutako pertsonen guztizko kopurua, sortutako enpresen guztizko kopurua eta emandako zerbitzuen guztizko kopurua. 2024az geroztik, emandako zerbitzuak erakundearen aplikazio informatikoan kargatzen dira, orientatzeko, eta dirulaguntzaren xede diren jardueren trazabilitatea eta egiaztapena errazteko. Gainera, Erakundeak urtero onartutako Jarraipen Planaren esparruan, 2024ko urriaren 29an, Programen Jarraipenerako Ataleko langileek bisita bat egin zuten erakunde horretara, deialdian ezarritako betebeharrak guztiak betetzen zituela egiaztatzeke. Aktan jasota dago ez zela ez-betetzerik antzeman.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako PES-36 galderarekin lotuta, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak honako hau erantzuten du:

Estellerriko Landa Garapena Elkartek (TEDER) laguntza bat jaso zuen 2025ean Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren eskutik, 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/2024 Foru Legeak jasotzen zuen partida izenduna exekutatzeko hitzarmen baten bidez: B30002 B3200 4819 334118 “(E) Hitzarmena TEDERekin. Euskara sustatzeko jarduketak finantzatzea eta arloko eragilea kontratatzea”.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontseilariaren 2025eko otsailaren 19ko 99E/2025 Foru Agindua- ren bidez 42.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion aipatutako elkarteari, 2025ean euskara sustatzeko eragile bat kontratatzeke eta euskara sustatzeko jardueren programa bat garatzeko.

Azkenean, Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 18ko 113E/2025 Ebazpenaren bidez ordaindutako zenbatekoa 24.597,27 eurokoa izan zen, azaroaren 30era arte sortutako gastuetatik jasotako justifikazioa berrikusi eta kontrolatu ondotik. Abenduko gastuen justifikazioa otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko da, hitzarmenaren G) klausularen a) letran jasotzen den bezala.

Halaber, jakinarazten da ebazpena errekurritu egin dutela ordaindutako zenbatekoan 4.582,70 euroko aldea dagoelako, eta errekurtsioa instrukzio-fasean dagoela.

Estellerriko Landa Garapena Elkartek (TEDER) ez du Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuaren beste laguntzarik jaso 2024an eta 2025ean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 27an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde.

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide den Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera idatzia egin du, Nafarroako Gobernuak, haren departamentuek, erakunde autonomoek, sozietate publikoek eta mendeko enteek Estellerriko Landa Garapeneko Elkarteari (TEDER) 2024ko eta 2025eko ekitaldietan emandako dirulaguntza, laguntza, hitzarmen, enkargu, ekarpen ekonomiko eta funts publikoen edonolako izaera juridikoko transferentzietan buruz.

Era berean, emandako laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren xehetasuna eskatu du: departamentu, erakunde eta entitate emailea; aurrekontu-ekitaldia eta emakida-data; emandako zenbatekoa eta, hala badagokio, azkenean ordaindutako zenbatekoa; aurrekontu-programa eta finantzatzeko baliatutako partida zehatza; dirulaguntzaren edo laguntzaren xedea eta helburua; emakida-prozedura (norgehiagoka, zuzeneko emakida, hitzarmen izenduna edo beste bat); emakida babesten duen araua, ebazpena edo akordioa; justifikazio-egoera (justifikatua, ordaintzeke, errekerimenduekin, itzulketekin edo erregularizazioekin); funtsen aplikazio egokiari buruzko kontrolak, jarraipen-txostenak, fiskalizazioa edo egiaztapenak daudenetz. Bada, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariak honako hau adierazten da horrekin loturik:

2024			
	Tokiko ekintzako taldeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko eragileak kontratatze eta sendotze .	Tokiko ekintzako taldeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko proiektuak garatzeko.	
Erakunde emailea	Nafarroako Berdintasunerako Institutua	Nafarroako Berdintasunerako Institutua	
Aurrekontu-ekitaldia	2024	2024*	
Emateko data	2024/06/02	2023/09/11	2024/08/14
Emandako zenbatekoa	25.755,05 euro	2.100 euro	7.500 euro
Ordaindutako zenbatekoa	25.755,05 euro	2.100 euro	7.500 euro
Aurrekontuko partida	080001-08100-4819-232207 (E)	080001-08100-4819-232207 (E)	
Dirulaguntzaren helburua eta xedea	Nafarroako tokiko ekintzako taldeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko eragilearen kontratazioa finantzatzeko laguntza.	Tokiko ekintzako taldeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko laguntza, planifikatzen eta lantzen dituzten proiektuak eginez.	
Emateko prozedura	Norgehiagoka.	Norgehiagoka.	
Emateko ebazpena	350E/2024 Ebazpena, ekainaren 2koa.	454E/2023 Ebazpena, irailaren 11koa.	436E/2024 Ebazpena, abuztuaren 14koa.
Justifikazio-egoera	Justifikatua eta ordaindua.	Justifikatua eta ordaindua.	

*Aurrekontu-ekitaldi honetan (2024), bi emakida egon ziren dirulaguntza horretarako. Lehen emakida 2023/2024 urte anitzeko deialdi bati dagokio, eta taulan 2024ko aldirako emandako eta ordaindutako zatia jasotzen da (2024ko otsailaren 29ra artekoa hartu zuen barne). Bigarren emakida dagokio 2024ko aldiaren gainerakoa barne hartzen zuen beste deialdi bati.

2025		
	Tokiko ekintzako taldeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko eragileak kontratatze eta sendotze .	Tokiko ekintzako taldeentzako dirulaguntzak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko proiektuak garatzeko.
Erakunde emailea	Nafarroako Berdintasunerako Institutua	Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Aurrekontu-ekitaldia	2025	2025
Emateko data	2025/05/21	2025/05/21
Emandako zenbatekoa	23.138,83 euro	12.000 euro
Ordaindutako zenbatekoa	23.138,83 euro	11.986,18 euro
Aurrekontuko partida	080001-08100-4819-232207	080001-08100-4819-232207
Dirulaguntzaren helburua eta xedea	Nafarroako tokiko ekintzako taldeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko eragilearen kontratazioa finantzatzeko laguntza.	Tokiko ekintzako taldeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta bultzatzeko laguntza, planifikatzen eta lantzen dituzten proiektuak eginez.
Emateko prozedura	Norgehiagoka.	Norgehiagoka.
Emateko ebazpena	333E/2025 Ebazpena, maiatzaren 21ekoa	334E/2025 Ebazpena, maiatzaren 21ekoa
Justifikazio-egoera	Justifikatua eta ordaindua.	Justifikatua eta ordaindua.

Jarraian, 2024an eta 2025ean azkenean ordaindutako zenbatekoen laburpena jasotzen da:

	Azkenean ordaindutako zenbatekoak (eurotan)
2024	35.355,05
2025	35.125,01
GUZTIRA	70.480,06

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatua betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Javier Remírez Apestegui

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00036). Hona Nafarroako Gobernu-ko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak ematen duen informazioa:

Honako informazio hau sartu da, epigrafe hauen arabera banatuta:

a) Eskualdeak suspertzeko planak egiteko eta gauzatzeko dirulaguntzen deialdia.

b) Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuan kudeatutako TEDERen espedienteak.

c) Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiaren espedienteak.

a) puntuari buruzko oharra:

Eskualdea suspertzeko planen deialdien barruan beti egoten da diruz laguntzeko moduko jarduerak egiten dituen talde sustatzaile eta dinamizatzaile bat. Estellerriko Suspertze Sozioekonomikorako Planaren kasuan, Lizarrako Merindadeko Behatokiak LASEME (Lizarrako Merindadeko

Enpresen Elkartea) elkarteari agindu dio diruz laguntzeko moduko jarduerak gauzatzea. Nolanahi ere, Laguntzen Deialdiaren Oinarri Arautzaileek ezartzen duten bezala, onuradunaren eta beste erakunde baten artean idatzizko akordio bat badago diruz lagundutako jarduera bat osorik edo zati batez gauzatzeko, erakunde hori ere izanen da onuraduna, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2024ko deialdian, LASEMEk eta TEDERek akordio bat ezarri zuten, eta, haren bidez, TEDERek proiektu hau eginen zuen: "Eskualdeko biomasaren zentro logistikoa. Eskualdeko biomasaren zentro logistikoa gauzatzen laguntzea eta hura kudeatzeko sozietatea abian jartzea". Proiektuak 50.762,55 euroko dirulaguntza jaso zuen laguntzen deialdian.

Proiektua egiteagatik, TEDERek, LASEMERen bidez, 49.493,12 euroko gastuak aurkeztu zituen justifikazioan. Zenbateko hori LASEMERi ordaindu zitzaion, eta elkartek, ondotik, TEDERi transferituz zenbatekoa, egindako akordioari jarraikiz.

Gastuetatik, 40.837,50 euro proiektua egiteko kanpoko kontratazio baterako erabili ziren (Foresna – Zurgai Nafarroako Baso Elkartea), eta 8.655,62 euro, berriz, langile-gastuetarako: Iñigo Nagore (2.813,25 euro) eta David Labeaga (5.842,37 euro).

b) puntuari buruzko oharra:

Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuan kudeatutako bi espediente daude. Nabarmendu behar da 0011-2741-2025-000001 espedientearen (irabazi asmorik gabeko erakundearen deialdiko espediente, berriztagarrietako inbertsio-jarduketa bategatik) geroago atzera egin zela Trantsizio Energetiko eta Digitaleko, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzailetzako zuzendari nagusiaren martxoaren 24ko 46E/2025 Ebazpenaren arabera, zeinaren bidez ebazten baita zeinaren bidez onesten baita "Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako trantsizio energetikorako laguntzak" deialdia.

Bigarren espedientearen berri eman da, egindako galderei erantzunda.

Eskatutako informazioa:

1. Laguntza eman duen departamentua, organismoa edo entitatea.

a) Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua.

b) Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua.

c) Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentua.

2. Aurrekontu-ekitaldia eta emateko data.

a) Aurrekontu-ekitaldia 2024. Emateko data: 2024ko maiatzaren 10a.

b) Aurrekontu-ekitaldia 2025. Emateko data: 2025eko urriaren 16a

c) Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiaren espedienteak:

– Aurrekontu-ekitaldia 2024. Ematea: abenduak 26.

– Aurrekontu-ekitaldia 2025. Ematea: abenduak 24.

3. Emandako zenbatekoa eta, kasua bada, azkenean ordaindutako zenbatekoa.

a) Emandako zenbatekoa: 50.762,55 euro. Ordaindutako zenbatekoa: 49.493,12 euro.

b) Emandako zenbatekoa: 530,65 euro.

4. Aurrekontu-programa eta finantzatzeko erabiliko den partida zehatza.

a) Aurrekontu-programa: 810 Enpresa Sustapena. Partida: 810001 81100 4819 422203 Eskualde- etako plan estrategikoak.

b) Moves III: 820001 82500 7819 425205 partida.

c) Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren espedienteak: biak dagozkio 830 programari (Merkataritzaren eta kontsumoaren garapena) eta 830001-83100-4819-431402 partidari (Hitzarmenak TETekin landa-merkataritzako jardueretarako).

5. Dirulaguntzaren helburua eta xedea.

a) Dirulaguntza honen helburua da Nafarroako garapena eta lurralde kohesioa sustatzea. Horretarako, Foru Komunitateko eremu guztietako eskualdeak suspertzeko planak prestatzen eta gauzatzen lagunduko da, genero ikuspegia aintzat hartuta.

b) Mugikortasun elektrikorako laguntzak (ibilgailu elektrikoak eta kargatzeko azpiegitura elektrikoak).

c) Nafarroako TET bakoitzaren eremurako landa merkataritzako jarduera plan espezifikoak exekutatzeko baldintzak ezartzea, eta Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak "Landa Merkataritza Dinamizatze Zerbiztu Sarea" izenburuko programari laguntza ekonomikoa ematea.

6. Laguntzak emateko prozedura.

- a) Norgehiagoka.
- b) Banakako ebaluazioa.
- c) Lankidetzaz-hitzarmena.

7. Emakida babesten duen araua, ebazpena edo erabakia.

a) 157E/2024 Ebazpena, maiatzaren 10ekoa, Enpresen Sustapenerako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ebazten baita "Eskualdeak suspertzeko planak egiteko eta gauzatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia" dirulaguntzaren deialdia.

b) 357E/2025 Ebazpena, urriaren 16koa, Trantsizio Energetiko eta Digitaleko, Enpresa I+G+Bko eta Ekintzaitzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez "MOVES III – 2025" dirulaguntzaren deialdia ebazten baita.

c) Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiaren espedienteak:

– 293E/2023 Ebazpena, abenduaren 28koa, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez berri egin baitzen "Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiaren eta Nafarroako Tokiko Ekintzako Taldeen arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2024an landa-merkataritzari laguntzeko jarduerak egiteko".

– 93E/2024 Ebazpena, abenduaren 20koa, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez berri egin baitzen "Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusia-

ren eta Nafarroako Tokiko Ekintzako Taldeen arteko lankidetzaz-hitzarmena" jarduerak egiteko.

8. Justifikazio-egoera.

- a) Laguntza justifikatuta eta ordainduta dago.
- b) Justifikatzeko.
- c) Biak ordainduta.

9. Funtsen aplikazio egokiari buruzko kontrolik, jarraipen-txostenik, fiskalizatorik edo egiaztapenik dagoen ala ez.

a) Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko Kontu-hartzaitzaz delegatuak fiskalizatu zuen dirulaguntza ematea eta ordaintzea.

b) Kontu-hartzaitzak fiskalizatu zuen ordainketa ematea.

c) Hitzarmeneko ordainketa guztiek alde aurreko fiskalizazio-kontrola dute, ekonomia eta ogasun departamentuko kontu-hartzaitzaz delegatuak egindakoa. exekutatzeko kontrola: TEDER elkarteak hitzarmenean egindako jarduera guztien azken justifikazio-txostena aurkeztu du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 6an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-26/PES-00037. Galdera, Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako ereduie buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Corellako Alhama BHIko ikasleei eskainitako ereduie buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak egindako 11-26/PES-00037 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak hiru eremu ezartzen ditu Nafarroan: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna, eta Corellako herria azkenekoan dago.

Arau horren II. tituluko I kapituluan —hain zuzen ere, 19. artikuluan eta hurrengoetan—, honako hau ezartzen da:

Herritar guztiek dute hezkuntza maila desberdinetan irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz izateko eskubidea.

Nafarroako Gobernuak euskara irakaskuntza planetan sartzeari arautuko du, eta ikastetxe bakoitzari aplikatzeko moduak zehaztuko ditu, Foru Legeak eremuetarako xedatutakoari jarraikiz.

Administrazio Publikoek behar diren bitarteko pertsonalak, teknikoak eta materialak emanen dituzte aurreko artikuluetan xedatutakoa gauzatzeko.

Ikasketa plan ofizialek Nafarroako kultur ondaretzat hartuko dute euskara, eta Foru Legearen helburuetara egokituko dira.

Era berean, IV. kapituluko 26. artikulua haxe xedatzen du eremu ez-euskalduneko irakaskuntzari dagokionez:

“Euskara irakaskuntzan sartuko da pixkanaka-pixkanaka, progresiboki eta nahikotasunez, egun dauden ikastetxe publikoetan euskaraz irakasten duten lerroak sortuz eskariaren arabera.

Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie eskaera egiten duten ikasle guztiei, halako moduan non euskararen ezagutza behar adinakoa izan ahalko baitute eskolatzearen bukaeran.

Eskariari sare publikoan erantzun ahal izan dakion, honako gutxieneko ikasle kopuru hau hartuko da aintzat: eskola-unitate bat taxutze aldera Hezkuntza Administrazioak irizpide objektiboek jarraikiz ezein irakaskuntza-eredutan baliatutakoa”.

Maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan euskara sartzeari eta erabiltzeari arautzekoak, haxe xedatzen du, 13. eta 14. artikuluetan, eremu ez-euskalduneko euskararen irakaskuntzari buruz:

“Euskararen Foru Legearen 26. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik, hezkuntza-administrazio eskudunak neurri egokiak hartuko ditu eremu ez-euskalduneko euskara ikasteko eskariari erantzuteko”.

“1. Euskara irakaskuntzan ikasgai gisa ikastetxe publiko eta pribatuetan sartzeko, Foru Dekretu honetako 5. artikuluan ezarritakoa beteko da, gurasoen edo tutoreen, edo hala badagokio, ikasleen eskaerak daudenean, betiere eskolako talde edo unitate bat osatzea ahalbidetzen duen gutxieneko kopurua bermatzen badute.

2. Administrazioak, ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztutako eskaera jasota, eta gurasoek edo tutoreek, edo hala badagokio, ikasleek aurkeztutako eskaerak ikusita, beharrezko diren txostenak eskuratu dituzte, eta ikastetxeko baldintzak baloratu ondoren, baimendu egingen du, hala badagokio, euskararen irakaskuntza pixkanaka-pixkanaka ezartzeari.

3. Herri batean ikastetxe bat baino gehiago badaude eta euskaraz ikasteko eskaerak badira, haietakoren batean edo haietako bakoitzean, eskolako talde edo unitate bat osatzeko ezarritako gutxieneko kopurutik beherakoak, hezkuntza-administrazio eskudunak irakaskuntza zer ikastetxetan emanen duten erabakiko du, eta bertan bilduko dira ukitutako ikasleak”.

Corellako Alhama BHI A ereduaren eskaintza jasota dago uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe

publikoen sarea berrantolatzea. Orain arte Alhama BHIIn ez da A ereduan matrikulatutako ikaslerik, hezkuntza komunitate horretako familien alde-tik ez baita haren eskaera nahikorik identifikatu.

Baliteke 2025/2026 ikasturterako curriculum eskaintza planifikatzeko aldiari familiek jasotako informazioa behar bezain argia eta zehatza ez izatea, horregatik, ikastetxeko zuzendaritzak, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren aholkularitza eta laguntzarekin, honako jarduketak hauek egin ditu, edo egin behar ditu:

– Ikastetxearen webgunean ikastetxeko hezkuntza eskaintzaren berri egoki ematen dutela ziurtatzea.

– Hezkuntzako Ikuskaritzak egiaztatzea ikasleek eta familiek informazio egokia jasotzen dutela galde-sortetan edo ikastetxean eginen diren informazio bileretan.

Iruñean, 2026ko martxoaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-26/PES-00038. Galdera, Bidean-en anbulantziei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Cristina López Mañero andreak Bidean-en anbulantziei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Bidean-en anbulantziei buruz (11-26/PES-00038). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

• Zergatik aldatu behar da BIDEANen 110 anbulantzietako 51 anbulantziaren karrozeria?

Arrazoi operatiboak direla-eta aldatu behar da 51 anbulantziaren karrozeria. Anbulantzia horiek, talde-garraio programatura bideratuak (A2 mota), gehieneko masa baimenduko 3,5 tona baino gehiago dauzkate une honetan, eta araudi indardunak ezartzen du pisu hori baino gehiago daukaten ibilgailuen kasuan gidariek C gidabaimena eta Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiria eduki behar dituztela.

Karrozeria aldatuta gehieneko masa baimendua murriztuz gero, anbulantzia horiek B gidabaimenarekin gidatzen ahal dira, eta horri esker osasun-larrialdietako teknikari gehiago egonen da erabilgarri eta ekidin eginen da C gidabaimena eta Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiria exijitu behar izatea.

• Zergatik ez zen hori aurreikusitako erosi zirenean?

Erosi zirenean, anbulantzien diseinua eta ezauzgarriak flotaren homogeneizazioari erreparatuta ezarri ziren, eta lehenago zerbitzua ematen zuten enpresa pribatuek erabilitako modeloak hartu ziren erreferentziazat.

• Nork erabaki zuen egoera horretan erostea?

Erabakia kontratazio-organoak hartu zuen.

• Zergatik ez da anbulantzia guztietan aldatu behar?

Aldaketa ez da anbulantzia guztietan egin behar, talde-garraio A2 motako 51 unitatetan soilik egin behar dela uste delako.

• Nola eragin dio zerbitzuari anbulantzia horietako akatsak?

Egoerak ez du inolako kalterik eragin zerbitzu-prestazioari begira. Osasun-garraioa normaltasun osoz egin da. Karrozeriaren aldaketa hobekuntza operatibo nahiz antolamenduzko bati zor zaio, ez akats bat zuzentzeari edo zerbitzuaren funtzionamenduari eragin dion gabezia bati.

- Lana noiz aurreikusten da amaituta egonen dela?

Kontratazio-txostenean jasotzen denez, karrozeria aldatzeko lanak 2026ko martxoaren 31n bukatu beharko lirateke gehienez ere; hau da, lanak hasi eta bi hilabeteko epean gutxi gorabehera.

- Karrozerien aldaketa egiten den bitartean zer eragin izanen du zerbitzuan?

Zerbitzuak ez du eraginik nabarituko aldaketa egiten den bitartean. Lanak modu mailakatuan eginen dira, flotak operatibo jarraitu ahal izan dezan eta osasun-garraio programatuaren jarraitutasuna bermatzeko.

- Zein da karrozerien aldaketa horren kostu ekonomikoa?

51 anbulantzia horien aldaketarako kontratazioaren kostu osoa 30.600 eurokoa da (BEZa aparte). Kostu hori behar bezala xehakaturik ageri da kontratazio-espedientearekin batera doan aurrekontuan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko otsailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-26/PES-00039. Galdera, Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Baztan-Bidasoan Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxe bat eraikitzeri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Hezkuntzako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak idatziz eginiko 11-26-PES-00039 galderari loturik:

Otsailaren 12an zuinketa egiaztatzeko akta sinatu zen, zeinak obrei hasiera ematen baitie. Exekuzioak 30 hilabete inguru iraunen du.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-26/PES-00040. Galdera, egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, egitekoa den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazte aldera zerbitzuak indartzeari buruzkoa, 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilariak hauxe jakinarazten du, Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko eginiko galderari loturik (11-26/PES-00040):

Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusia zerbitzuak indartzen ari da, laster eginen den migratzaileen ezohiko erregularizazioa errazteko, honako ekintza hauen bitartez:

– Ezohiko erregularizazio prozedurari heltzeko moduan dauden eta administrazio-egoera irregularra duten pertsonen arretarako berariazko zerbitzua ezartzeko azterketa. Zerbitzua aldi zehatz

batez eginen da. Une honetan aztertze eta planifikatzeko aldi dago.

– Erregularizazio prozesuari buruzko informazioa eguneratzea. Migrazioen Estatuko idazkaritzak ematen duen informazioaren aurrerapena oinarri hartuta, zenbait hedabidetan (Nafarroa webgunea, sare sozialak, posta elektronikoa eta entitateen kontaktua) informazio egiazkoa eta egiaztatua zabalduz.

– Erregularizazio prozesuari buruzko online informazio-saioak egitea, hauentzat:

- Entitate sozialak; toki-entitateak; migratzaileen elkarteak eta Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak.

- Aurreikusitako saio kopurua: 2 saio entitate tipologiaren arabera.

– Erregularizazio prozesuari buruzko aurrez aurreko informazio-saioak egitea migratzaileentzat.

- Aurreikusitako saio kopurua: 4 saio Nafarroako geografiako zenbait tokitan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazterriko eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-26/PES-00041. Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa-

ren aurrerapenari eta planak Artistaren Estatutuaren garapenarekin duen loturari buruzkoa, 2026ko otsailaren 13ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-26/PES-00041 galdera idatzia egin du. Bada, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak honako hau jakinarazten du galderarekin loturik:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, kultur sektorea profesionalizatzeko estrategia garatzen ari da 2024-2028 aldirako Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren esparruan, eta bertan egiturazko ildo bat da Nafarroako kultur ekosistemaren lan-, zerga- eta prestakuntza-baldintzak hobetzearekin lotuta.

2024ko urriaren 31n Kulturaren Lanbideen Legearen egutegiari eta Artistaren Estatutua Nafarroako errealtaterara egokitzeari buruz onetsitako mozioari dagokionez, lan horiek esparru estrategiko horren barruan sartzen ari dira, eta horri esker zeharkako eta teknikoki oinarritutako ikuspegi batekin heltzen ahal zaie. Ikuspegi horrek erantzuten dio kultura-azpisektoreetako (musika, arte eszenikoak, ikus-entzunezkoak, ondarea, kultura-bitartekaritza edo sorkuntza garaikidea) lan-, prestakuntza- eta zerga-errealitateen aniztasunari, eta, horrenbestez, azterketa zorrotza egin behar da alde zuzenetik, etorkizuneko arau-erabakiak behar bezala oinarritzeko.

Testuinguru horretan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia txosten tekniko bat prestatzen ari da, Nafarroan lanbide artistikoa arautzeko gakoak hizpide harturik, zeina oinarritzeko dokumentu gisa pentsatua baita Kulturako Lanbideei buruzko etorkizuneko Legea egiteko eta Artistaren Estatutu Foru Komunitatera egokitzeke.

Dokumentuak honako honi heltzen dio modu egituratu batez:

- Kultura-eragileentzako laguntza eta orientazioa hobetzea
- Lanbide-erabakia aitortzea eta egiaztatzea
- Departamentuen (Ogasuna, Hezkuntza, Gizarte Eskubideak eta Ekonomia Garapena) arteko koordinazioa, kulturaren arloko enpleguaren zeharkotasuna dela kausa
- Kulturaren arloko enpleguari buruzko datu eguneratuak eta banakatuak izateko beharra
- Kultura, hezkuntza eta prestakuntzako esku-menak aztertzea
- Besteren konturako eta norberaren konturako lana
- Kulturaren arloko mezenazgoa eta fiskalitatea
- Jabetza intelektuala eta eskubide kolektiboak
- Laneko arriskuen prebentzioa kultur jardueretan
- Sektoreari aplikagarri zaizkion zerga- eta tributu-neurriak

Halaber, txosten hori egiteko epe luzeagoa behar izan da hasieran aurreikusitakoa baino, haren edukia Nafarroako Kulturaren 2024-2028 aldirako Plan Estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko dispositiboarekin kontrastatu baita, bereziki 2024-2025 aldiari dagokion urteko jarraipen txostenarekin, diagnostikoaren, neurrien eta ebaluazioaren arteko koherentzia bermatzeko. Oraingo aurreikuspena da 2026ko lehen lauhilekoan aurkeztea. Aldi horretan, lanbide-aitortzari eta lan-baldintzei buruzko gogoetak zeharka gehitu dira garatzen ari diren arau-tresna eta -esparruetan.

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00042. Galdera, 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 3x3 saskibaloiko Liceo Monjardín taldeko jokalariei buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-26/PES-00042 idatzizko galdera egin zuen. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoaren kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nafarroako errendimenduko kirola eta haren katalogazioak araututa daude otsailaren 22ko 9/2012 Foru Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko errendimenduko kirola eta goi mailako kirolarien zerrenda arautzekoan. Arauan, 3. artikuluan, estamentuak eta errendimenduko kirolaren maila hauek zehazten dira: Nafarroako goi mailako kirolaria, Nafarroako goi errendimenduko kirolaria, hobekuntzako kirolaria eta oinarritzko errendimenduko kirolaria.

Gerora, 9/2012 Foru Dekretua garatu zuten, batetik, martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpenak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emanak —haren bidez Nafarroako goi mailako kirolari bihurtzeko bete behar diren kirol betebeharrak teknikoak aldatu baitziren, eta honako hauek arautzen baitira: Nafarroako errendimenduko kiroleko epaile, teknikari eta kirolari izaeraren iraunaldia, Foru Komunitateko kirol administrazioak Nafarroako errendimenduko kiroleko epaile, teknikari eta kirolariei ematen dizkien prestazioak eta, azkenik, kirol federazioen ziurtagiriaren eredu eta norbanakoen eskabidearen eredu Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako kirolari, teknikari edo epaile izendatzeko—, eta bes-

etik, maiatzaren 29ko 329/2015 Foru Aginduak, Gizarte Politiketako kontseilariak emanak (prozedura arautzen duena Nafarroan goi errendimenduko kirolean, hobekuntzako kirolean eta oinarritzko errendimendukoan sartzeko).

Araudi horretan maila guztietan Nafarroako errendimenduko kirolari gisa katalogatzeko behar diren irizpide orokorrak nahiz teknikoak azaltzen dira.

Errendimenduko kirolariaren katalogazioarekin lotuta informazioa eskatutako kirolariak hirugarren postua erdietsi zuten Espainiako klubetan 3x3 Saskibaloia Txapelketan (Cuencan, 2025eko ekainaren 13tik 15era bitartean, egin zen), zeinean, gizonen kategorian, 40 taldek parte hartu baitzuten.

Kasu horretan, nabarmendu behar dugu absolutua baino beheagoko kategoria bat izanik emaitzak ez dakarrela Nafarroako goi mailako kirolari katalogatzea; izan ere, kategoria absolutukoak baino ez dira hartzen, ohiko bidean, Nafarroako goi mailakotzat, eta horrela ikusten da eskatutako sailkapeneko emaitzak erakusten dituzten tauletan, ikusgai aurretik esandako martxoaren 30eko 240/2015 Ebazpenaren I. eranskineko II. kapituluaren aurkeztutako kasuan junior kategoriakoak dira; alegia, absolutua baino apalagoak.

Txostenean baloratutako kirolariak ez dute betezen, gainera, Nafarroako goi errendimenduko kirolari katalogatzeko baldintza teknikoetako bakar bat ere (errendimenduko kirolariaren 2. katalogazioa). Baldintzak maiatzaren 29ko 329/2015 Foru Aginduaren I. eranskineko 3. puntuan jasota daude.

Azkenik, 329/2015 Foru Aginduaren I. eranskineko 4. eta 5. puntuetan azaldutako kasuak ere ez dituzte betezen; hau da, hobekuntza kirolariaren edo oinarritzko errendimenduko kirolariaren katalogazioan sartzeko kasuak, bertan batez ere Nafarroako Selekzioetako kirolariak daude.

ONDORIOA:

Baieztatzen ahal dugu, gaur gaurkoz, indarrean dagoen araudian oinarrituta, kontsultaren xede diren kirolariak EZ dituztela betezen Nafarroako errendimenduko kirolari gisa katalogatzeko baldintza teknikoak.

Garrantzitsua da nabarmentzea, halere, Errendimenduko Kirolaren Dekretu berria laster argitaratuko dela, eta kontuan hartuta zirriborro berrian eskatutako baldintza teknikoak, emaitza horrekin

etorkizunean Nafarroako goi errendimenduko kirolari katalogatzeko aukera izanen luketela, parte hartutako autonomia-erkidegoen eta taldeen kopuruari, ondoko taulan azaldu bezala.

JO / Munduko Tx. / Europako Tx.			Espainiako Tx. / Estatuko sailkapena 75 perzentila. % 25 TOP			Parte hartutako taldeak (8 herrialde eta 4 autonomia-erkidego gutxienez)
Parte-hartzea	Parte-hartzea	Parte-hartzea	4	3	4	+20
Parte-hartzea	Parte-hartzea	Parte-hartzea	2	1	2	10-20
Parte-hartzea	Parte-hartzea	Parte-hartzea	1	1	1	5-10
Absolutua	Txikiagoa	Txik. Abs.	Absolutua	Txikiagoa	Txik. Abs.	

Espainiako Txapelketaren mailan bai autonomia-erkidegoen araberrako txapelketak, bai klubaren araberrako txapelketak hartuko dira kontuan.

LOTUTAKO ARAUDIA:

– 9/2012 Foru Dekretua, otsailaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko errendimenduko kirola eta goi mailako kirolarien zerrenda arautzen dituen. <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5925761>

– 240/2015 Ebazpena, martxoaren 30ekoa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriarren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, Nafarroako goi mailako kirolari izateko kirol betekizun teknikoak aldatu eta Nafarroako errendimenduko kiroleko epaile, teknikari eta kirolari izaeraren iraunaldia, Foru Komunitateko kirol administrazioak Nafarroako errendimenduko kiroleko epaile, teknikari eta kirolariei ematen dizkien prestazioak eta kirol federazioen ziurtagiriaren eredia eta Nafarroako

Foru Komunitateko goi mailako kirolari, teknikari edo epaile izateko norbanakoen eskabidearena arautzen dituen.

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/85/8/>

– 329/2015 Foru Agindua, maiatzaren 29koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, prozedura arautzen duena Nafarroan goi errendimenduko kirolean, hobekuntzako kirolean eta oinarriko errendimendukoan sartzeko.

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/141/10/>

Horixe jakinarazten ahal dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 9an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-26/PES-00043. Galdera, Moves III Planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Moves III Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren

20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-26/PES-00043), Moves III Planari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroa ibilgailu elektrifikatuen merkatuko buruan dago, elektrifikatuen ehunekoa % 34,2koa izanik 2025ean, Auto eta Kamioi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen datuen arabera; alegia, Estatu osoko ehunekorik handiena. Ibilgailu horiek erosteko laguntzen kudeaketaren emaitza da hori, eta mota horretako ibilgailuak erosteko % 30eko zerga-kenkariak eman zituen lehen erkidegoa izatearen emaitza. Gainera, 2026ko abenduaren 31n 3 ibilgailutik 1 elektrikoa izateko helburua 2025ean lortu da jada; hau da, urtebete lehenago.

1. Nafarroan aurkeztutako eskaera guztiei erantzun zaie MOVES III 2025ean?

Nafarroak programa kudeatzen duenetik eskura ditugun datuen arabera, urtero 8,5 milioi euro eman dira guztira; orotara 30 milioi euro 24/12/31ra arte jasotako eskaera guztietarako.

2025ean, urtebetean bakarrik, Nafarroak 10 milioi euro baino gehiago jaso zituen. Hasiera batean, Nafarroari 5.085.186,80 euro eman zitzaizkion, 5M gehikuntzarekin, 10.085.186,80 euro guztira.

Gaur egun, deialdia kudeatzen ari da, eta ondoz ondoko emakidak ateratzen ari dira. Emakidak atera ahala, Nafarroako Gobernuaren izapideen katalogoaren fitxan eguneratu eta jakinarazten da emakida berria zer eskaeratarira iritsi den.

2. Zenbat eskaera gelditu dira laguntza jasotzetik kanpo? Zer kontzeptutan eta zenbatekotan?

Bikoiztu egin da hasieran esleitutako aurrekontua (5M izatetik 10M izatera igaro da), eta gainditu egin da aurreko urteetan kudeatutako aurrekontua. Dirulaguntza emateko lanean ari diren arren,

aurreikusten da ez zaiela eskaera guztiei erantzuten ahalko.

Emateko lanean ari gara, eta espedienteak jasoko dira kobratzeko eskubideak galtzen diren eta ez-betetzeak nahiz uko egiteak dauden heinean. Hala ere, prentsa oharrean aurreratu zen bezala (<https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/moves-iii-2025-planaren-deialdia-arautzen-duten-oinarriak-onartu-dera>), eta dagokion fitxan jakinarazitakoaren arabera, funtsak epe laburrean agortzea aurreikusten zen, eta, horrenbestez, eskaera guztiei erantzutea zaila izanen da, ez-betetzeak nahiz uko egiteak egonagatik ere.

3. Funtsak agortzen badira, beste banaketa bat egonen al da autonomia-erkidegoen artean?

Programaren finantzaketa kudeatzen duen IDAEREkin azken kontsulta-bilera egin ondotik, eta autonomia-erkidego anitzek beste banaketa bat egitea proposatu ondotik, IDAEk jakinarazi du oraingoz ez dela banaketa berririk aurreikusten. Hala ere, Nafarroak adierazi du funts berriak behar dituela eskaera guztiei erantzuteko.

4. Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du norbanakoentzako birkarga-puntuak instalatzeko beste laguntza-lerro bat ezartzeko?

Aurreikusita dago 2026ko ekitaldian kargatzeko guneak jartzeko laguntza lerro bat, bestek beste, partikularrentzat. Tximista Auto Planak 4.700.000 euroko hasierako aurrekontua du, eta horietatik 1.000.000 € kargatzeko azpiegituratarako dira, era guztietako onuradunentzat (partikularrak, enpresak, irabazi asmorik gabeko erakunde juridikoak eta autonomoak).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

11-26/PES-00044. Galdera, Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroi buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako Gobernuaren mendeko edo haren tutoretzapeko zentroi buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2026ko otsailaren 20ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru-parlamentariak 11-26/PES-00044 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun du:

Lehenik eta behin, esan behar da zioen azalpenean azaldutakoaren zati bat ez datorrela bat egitateen errealitatearekin, ulertzen baita hain gaitikorrerik buruzko baieztapenik ez dela egin behar komunikabideetan adierazten dutenagatik.

Bigarrenik, jakinarazi behar da babes-sisteman egoitza-baliabideak etxe gisa antolatuta daudela, eta ez dagoela adinen arabera sailkapen zorrotzik. 92/2020 Foru Dekretuak ez du adin irizpiderik ezartzen harrera baliabideak baimentzeko (92/2020 Foru Dekretua abenduaren 2koa, Nafarroako Foru-erkidegoko gizarte-zerbitzuen sistemako adinekoren, desgaitasunaren, buru-nahastearen, adingabeen arretaren eta gizarteratzearen arloetako egoitza-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta ambulatarioen funtzionamendua eta baimenen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea arautzen dituena). Gizarte zerbitzuen zorroak ere ez ditu zerbitzuak adinaren arabera bereizten. Behaketa- eta harrera-zentroak bakarrik daude antolatu-

ta arreta emateko, alde batetik, 14 urtetik beherakoei eta, bestetik, adin horretatik gorakoei, eta hori ere ez da irizpide zorrotza (ezta arauemailea ere), haurren beharren arabera baliabiderik egokiena ematea baita helburua. Helburua da etxeetan ahalik eta kidesun handiena duten haurrak bizitzea, haietako bakoitzaren ezaugarri bereziak baloratuta eta bakoitzak denboran zehar duen bilakaera-prozesua aldatzen dela kontuan hartuta. Informazio eskaeran aipatzen den kasu zehatzean, lehenetsi egin zen, babes neurri egokiago gisa, adingabea bi anai-arreba nagusiekin batera joatea, harrera familia egokirik ez zegoelako, halaxe xedatzen baitu Haur eta Nerabeei Arreta eta Babesa Eman eta Haien Familiak, Eskubideak eta Berdintasuna Sustatzeko maiatzaren 11ko 12/2022 Legeak. Haurtzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzan balorazioaz arduratzen diren teknikariek hartu zuten erabakia.

Esan bezala, Haurtzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzako langileek haur bakoitzaren egoera ebaluatu zuten, eta haien beharren arabera baliabiderik egokiena zein zen baloratu zuten.

Azkenik, jakinarazi behar da Nafarroako Gobernuak ez duela inolako informazio- edo diziplina-espediterik ireki, etxeko profesionalak egin zituzten jarduerak egokiak izan zirelako eta horrelako egoeren aurrean ezarritako protokoloari egokitu zitzaizkielako.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2026ko martxoaren 10ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

